431 zenbakia. 2000ko azaroaren 24a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara




MARKIEGI
autoak
Leizeaga 1 (S. Lorentzo Industri Poligonoa)
BERGARA Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76
FIAT Alfa Romeo



Fiat Punto Team JTD
BERRIA
Common rail teknologia dieselarekin.
Azkarra eta zintzoa.




*Txuringo Jatetxea*





*~Menua eta karta*
*~Ezkontzak*
*~Jaunartzeak*
*~Txerrikumea, bildotsa, baserriko oilaskoa labean erreta...*

***OSINTXU. Tel. 943 76 48 63***

PERTSONA GUZTIEK
HEZIKETA ESKUBIDEA DAUKATE
(GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO
UNIBERTSALAREN 26.1 ARTIKULUA)



# Milioi bat hildako
# Milioi bat arkatz

IRAK-I EGINDAKO BLOKEO GENOZIDAREN AURKAKO BILKETA KANPAINA

**Bergarako herriari eta ikastetxeei dei egiten diegu kanpaina honetan parte har dezaten.**
Kanpaina abenduaren 20ra arte izango da. Materiala lagatzeko: **Bergarako Udaletxean eta Kultura Etxean, Matxiategiko estankoan, Peñalba eta Idatzi dendetan eta Toki Ederreko Garbil inprimategian.**
Informazioa: 943 34 04 04. Diruz laguntzeko Euskadiko Kutxako kontu-zenbakia: 3035 0776 93 0761047889.

**KOMITE INTERNAZIONALISTAK**

SUSTATZAILEA: IRAKEN ENBARGOAREN AURKAKO EUSKAL HERRIKO PLATAFORMA





# Informazioaren gizartea: aukera edo mehatxua

**Jose Luis Garitano** / Formakuntzako gestorea

Informazioaren Gizartea (IG), teknologia informatikoaren eta telekomunikazioen industriaren garapenak aurrera egiten duten neurrian, gizartearen garapena sustatzen dabil, produkzio, komunikazio eta bizi kalitatean, gizartearen alor guztietan.

Ekonomian, kulturan nahiz eguneroko bizitzan duen eragina sekulakoa da; horrela, botere publiko eta pribatuak neurri egokiak hartzera behartzen dituzte Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ezartzeko, garapen ekonomikoa sustatzeko eta gizartea bateratzeko.

IG berehala ezartzea, enpresen lehiakortasuna hobetzea, kultura eta hezkuntza sustatzea, belaunaldi berrien sorrera, ekonomiaren mundualizazioa, enpresen berrizte etengabeak eta askatasunaren eta solidaritatearen baloreak ezaugarri dituen inguru batean, hau guztia lortu nahi da. Horrek gazteendako aukera ugari sortuko ditu aldaketa prozesu ikaragarriak egongo dira-eta; gazteak aldaketa hauetaz ez jabetzea zaila da, ia ezinezkoa.

Europar Batasuna Europaren eraldaketa bizkortzearen alde agertu zen Lisboako Gailurrean, eta baita Informazioaren Gizartea europar guztiek erabili ahal izan dezaten bihurtzeko. Honako ekintza hauek ditu aurreikusita Europar Batasunak: europar gazteria aro digitalean, Interneten ekonomia sartzea, merkataritza elektronikoa bultzatzea, txartel eta garraio autoaskitzaileak.

Honezkero, herrialde guztiak hasi dira hainbat programa eta ekimen abian jartzen, lehiakortasunaren borrokan lekua ez galtzeko; baina, batez ere, eskariak egon daitezen lortzea da euren helburua. Tamalez, gure ingurunean ez da oso aberatsa eskaria, nahiz eta industria oparoa eta hezkuntza sare ona dugun.

Gure Autonomi Erkidegoan, herritarrentzat oso lagungarri diren hainbat ekimen eta programa zehatz daude: ekimen hauetan gastatzen dute dirua herritarrek; horrela, fondo galdu edo diru laguntza zuzenak bideratu dira (25.000 pezeta Eusko Jaurlaritzak eta 20.000 Gipuzkoako Foru Aldundiak) familia bakoitzak ordenagailu bat eros dezan.

Ordenagailu horrek ezaugarri onak ditu, oso prezio lehiakorra, eta, gainera, finantzatzeko hainbat bide; beraz, edozein familiak erosi ahal izango du ordenagailu bat, Informazioaren Gizarteari zentzu praktikoa nahiz hezitzailea emateko oinarrizko erreminta da-eta.

*"Europar Batasuna Europaren eraldaketa bizkortzearen alde agertu zen Lisboako Gailurrean, eta baita Informazioaren Gizartea europar guztiek erabili ahal izan dezaten bihurtzeko"*

Eta hona hemen familia, Informazioaren Gizarteari eta Giza-Pentsamenduari benetako zentzua emango dion gune edo nukleo naturala. Bide batez, esan beharra dago Giza-Pentsamendua kontzeptu berri eta iraultzaile bezala ezartzen ari dela enpresa eta ekonomia munduan.

Argi dago Informazioaren Gizartean aurrerantzean protagonista izango diren pertsonengan balore indibidualak sustatzea eta indartzeko erantzukizuna familiak izango duela. Beraz, ahalegin estretegikoek familiei bideratuta egon behar dute, hauek bide eta formula egokiak ikas ditzaten, euren seme-alaben eskaerei erantzun egokia emateko, hauen gizarteak izango dituen erreferentziak hauek izango dira-eta: norberaren arrakasta, nor bere bidetik ibiltzea, noraeza, ziurtasunik eza, elkartasun eza... eta paradoxa bada ere, jasaten gabiltzan desinformazioa (TIC-ak egon arren), edo hobeto esan, informazio partidista (beldurgarria, gupidarik gabea, behin eta berriro errepikatua, eta aspergarria), medio bakoitzaren botere propioen helburu eta interesei bideratuta.

Horren harira, gurasoak kezkatuta daude, zail egiten zaielako euren semeendako etorkizun oparoa ikustea: ziurtasun ezan murgilduta daude euren ingurunean dauden baliabide nahiz erremintak ez dituztelako ezagutzen, eta hauek duten garapena sistema ekoizle, ekonomiko, kultural nahiz sozialean ere ez noski; eta ezta ere hauen eragina etorkizuneko gizarte ereduan.<

## barruan



**Aitziber Mugika**

Psikologoa

***"Neska-mutikoen arteko harremanei garrantzia eman behar zaie ikastetxeetan"***

8.



**Jesus M. Zornoza**

Txorno dendakoa

***"Jendia atenditzia, jendiakin harremanetan egotia da gehixen gustatzen jatena"***

15.



**Guillermo Azkarate**

Idazlea

***"Cuentos checoslovacos... o así puzzle bat da: loturarik gabeko flashek osatzen dute"***

16.

gazte informazioa

**BEKAK**
**Artea.** Arte Ederren Museoa; BBK. Eskainitako beka ezberdinen arabera. 2 urteko iraupena. Epea: abenduak 22.
**Euskara eta katalan hizkuntzen ikaskuntza.** Eusko Ikaskuntza, Institut d'Estudis Catalans. 1989 eta 2000. artean lizentziatu edo graduatuak. Epea: abenduak 15.

**IKASTAROAK**
**Mendia.** Gipuzkoako Goi Mendi Eskola; Gipuzkoako Mendizale Federakundea. Mendi federatu txartela dutenentzat. Hsztapena eta segurtasuna goi mendian, glaziareko alpinismoa. Abenduaren 2an eta 3an, Tena baiaran (Pirinioak). Epea: Azaroak 29.

**JARDUERAK**
**Zubirako turismo aukerak.** Bertakoak nahiz atzerrikoak. Aterpetxeak, Nekazari etxeak, kanpinak, kirol-jarduerak, garraioak, ibilbide kulturalak. Lekuren bat topatu nahi izanez gero, lehenbailehen kontsultatzea gomendatzen da.

**SARIAK**
**Ikerketa-saria.** Errenteriako Udala. Euskal Filologian lizentziatuentzat. Ikerbidea ikerketa-saria: euskararen alderdi jakin bat aztertzeko da. Proiektuak euskaraz sortuak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira. Epea: Abenduak 1.

**LAN-ESKAINTZAK**
**Ofiziala.** Irurako Udala. Eskola-graduatua, LH1 edo baliokidea. B1 gidabaimena. Epea: abenduak 2.
**Administrari laguntzailea.** Iruneko Udaleko Kirol Patronatua. Eskola-graduatua, LH1 edo baliokidea. Epea: abenduak 2.
**Kamioiko ofizial gidaria.** Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea. Eskola-graduatua, LH1 edo baliokidea. C2 gidabaimenekoa eta trailerrerako E gidabaimenekoa. Epea: azaroak 27.
**Langile espezialista.** Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea. Eskola-ziurtagiria edo baliokidea. B1 gidabaimenekoa. Epea: azaroak 27.

**KARNETAK**
Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.**

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Garei, gareixa**
Garaia.
Bergaran dago Gipuzkoan gelditzen den garai bakarra.



## Tenperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

| | San Juan auzoan | | |
|---|---|---|---|
| | Tenperatura maximoa | Tenperatura minimoa | Euria |
| **Azaroak 16, eguena** | 8 °C | 1 °C | 23,5 l/m² |
| **Azaroak 17, eguakitza** | 12 °C | 6 °C | 37,3 l/m² |
| **Azaroak 18, zapatua** | 12 °C | 6 °C | 4,2 l/m² |
| **Azaroak 19, domeka** | 11 °C | 10 °C | 11,5 l/m² |
| **Azaroak 20, astelehena** | 10 °C | 8 °C | 14,6 l/m² |
| **Azaroak 21, martitzena** | 14 °C | 6 °C | 3,9 l/m² |

## Farmaziak

**Eguakitza 24:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

**Zapatua 25:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Domeka 26:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Astelehena 27:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Martitzena 28:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Eguaztena 29:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguena 30:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

## Ogia

**Domeka 26:** Ogizun.

## mezak

**Santa Marina**
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
**San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
**Osintxu**
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
**Elosu**
Domekak: 10:00.
**Ubera**
Domekak: 10:30.
**San Juan**
Domekak: 11:00.
**Basalgo**
Domekak: 13:00.
**San Prudentzio**
Domekak: 10:30.
**Labegaraieta**
Domekak: 11:00.
**San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
**Angiozar**
Domekak: 11:00.
Eguakitzak: 19:00.
**Monja Zaharrak**
Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
**Mizpirualde**
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
**Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
**Uzarraga**
Domekak: 10:00.

**URTE-MEZAK**
**Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
**San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Bergarako udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Antzuolako udaltzaingoa | 943 76 62 46 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Mendaroko ospitalea | 943 03 28 00 |
| Zumarragako ospitalea | 943 03 50 00 |
| Arantzazuko osp. (Donostia) | 943 00 70 00 |
| Santiago ospit. (Gasteiz) | 945 00 76 00 |
| Txagorritxu osp. (Gasteiz) | 945 00 70 00 |
| Basurtoko ospitalea | 94 400 60 00 |
| Galdakaoko ospitalea | 94 400 70 00 |
| Gurutzetako ospitalea | 94 600 60 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| Odol emaleak | 943 76 16 24 |
| Itxaropenaren telefonoa | 943 45 80 05 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Bergarako udaletxea | 943 77 91 00 |
| Antzuolako udaletxea | 943 76 62 46 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Kiroldegia | 943 76 56 41 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **ABERIAK / ISTRIPUAK** | |
| Argindarra. Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Grua. Ibai | 608 67 68 21 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Idolaz | 943 76 65 08 |
| Jubilatuen Etxea. Bergara | 943 76 21 40 |
| Antzuolako jubilatuen elk. | 943 76 62 71 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |
| Bedelkar | 943 76 04 68 |
| Akulu AEK | 943 76 05 18 |
| Udal euskaltegia | 943 76 44 53 |
| Bergarako notaritza | 943 76 10 73 |

## zorion agurrak



**Luis Lenisoro**
24an 42 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ander Macho**
27an 13 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aitor.



**Xabier Martinez**
30ean 21 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, anai-arrebak eta lagunak.



**Jose Taboada**
25ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



**Julen Muruamendiaraz**
24an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Maitane.



**Aintzane Gabilondo**
29an 8 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



**Amaya Ruiz**
25ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ane Motoso**
26an 5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Amaia.



**Maite Nuñez**
27an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.



**Maitane Aranzabal**
26an 4. Urte askotarako! Etxekoak eta aitona-amonak.



**Marlen**
27an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Nerea Urresti**
25ean 6 urte.
Zorionak Ameriketatik etxeko printzesari!



**Peio Otaño**
29an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mariñe.



**Nagore Manso**
28an 413 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta, batez ere...



**Nerea Odriozola**
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maialen.



**Lorena Elexpuru**
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Ander Maiztegi**
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Maialen.



**Ion Zangitu**
30ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

### ESKELA

# Elisabeth Muguruza Mayner



*GAZTE MAITEOK*
*Goazen goitara / Galdu gabetan denborik*
*Beti alai eta beti irripartsu / inun hartu gabe lorik*
*gogo bizia daukanarentzat / ez da faltatzen girorik*
*gorputzarentzat ez dago ezer / mendia bezelakorik.*

*Agur Eli, makina bat aldiz mendi eta kale, elkarrekin ibilitako lagun.*

Arantzazu, Karmentxu, Amaia eta Puri

### ESKER ONA

# Juana Rodriguez Carrasco



Bergaran hil zen
2000ko azaroaren 12an,
46 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Hurrengo alean,* ***abenduaren 1etik 14ra*** *bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Miren Montaña Ekiri**
Azaroak 10
**Erik Herran Suinaga**
Azaroak 13
**Maider Andrinua Irazabal**
Azaroak 14

## hildakoak

**BERGARA**
**Juana Rodriguez Carrasco**
Azaroak 12, 46 urte
**Pedro Maria Alberdi Agirre**
Azaroak 17, 75 urte
**Carmen Elisabeth Muguruza Mayner**
Azaroak 19, 47 urte

## autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaieg.:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunak:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaieg.:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 19:00.

**Bergara-Bilbo.** *Laneg.:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaieg.:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ERAKUSKETA

## *Mikel Gotzon Garcia*

- Hilaren bukaerara arte
- Nahikari tabernan

Bergaran lanean ari den Mikel Gotzon Garcia "Izurun" donostiarraren margo erakusketa ikusgai dago Nahikarin. "Izurun"ek txikitatik izan du margotzeko zaletasuna, eta honako hau aspaldian egiten duen lehenbiziko erakusketa dugu. Nahikariko paretetan 8 olio, egurrean egindako beste lau margo eta beste sei akuarela zintzilikatu ditu. Jendeak ikus ditzakeen lanen artean, badira lan zaharrak (1968an egindako "Idea" izenburukoa, esate baterako) eta azkenaldian margotutakoak ere bai. Mikel Gotzon Garciak 10 urte zeramatzan bere lanak erakusteke eta bere lana ezagutzera emateko gogoa zuela aitortu digu: "Orain arte erakusketara etorri izan den jendeak nire lanekiko kuriositatea azaldu du eta pozik nago jasotako erantzunarekin. Beharbada, egurrean egindako koadroak dira bitxienak. Tinteen bidez egurra gertatu, trementina esentziarekin-edo ondo garbitu, sikatu, eta margotzen hasi baino lehen tindatu egiten da; gero, egurra barnizatu egiten da. Emaitza nahiko ikusgarria da".

Bere estiloa definitzerako orduan zera dio: "Gehienbat pintura figuratiboa gustatzen zait. Errealismoa, aldiz, ez dut gogoko. Margotzeko orduan, ez dut nire burua hasieran pentsatutakoa margotzera behartzen eta oroitzapenak, sentsazioak eta momentuko motibazioak islatzen saiatzen naiz". Bere lanan artean, itsas girokoak nagusi dira: "XVI. mendea izugarri interesatzen zait eta Itsas Armada Garaitezina gidatzeko itsasgizon euskaldunek izan zuten eginkizunari buruz material asko idatzi dut". Pinturan ere XVI. mendearen amaiera aldeko margolariak gustatzen zaizkio "Izurun"i.



Mikel Gotzon Garcia, bere lanetako baten ondoan.

# ANTZERKIA

▶ **Kukubiltxo** taldearekin, "Txirrikiz" haurrentzako antzerki emanaldia bihar, zapatua, 17:00etan, Arrasateko Amaia antzokian.

# MUSIKA

▶ **Julia Leonen "Lorategi ezkutua"** sefardi musika kontzertua bihar, zapatua, 19:30ean Udaletxean.

▶ **Jam. Medina Azahara** gaur, eguakitza, 22:00etan. Zapatuan **Agnostic Front, Ignite, The forgotten, Shutdown, Discipline** eta **Stamping ground,** 22:00etan. Domekan, **Rob Habford**, 21:30ean.

▶ **Arriolako XI. Jazz Blues Jaialdia** Elorrion: gaur, eguakitza, **Magnus Lindgren** (jazz), 23:00etan, Arriola aretoan. Bihar, zapatua, ordu eta toki berean, **Katz Blue Trio** (blues).

# ERAKUSKETAK

▶ **Mikel Gotzon Garcia "Izurun"**en margoak Nahikarin.

# LEHIAKETAK

▶ **Amodiozko gutunen IX. Lehiaketa,** Jardun elkarteak deituta. 1986an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak parte har dezake. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da. 943 76 08 19.

▶ **Antzuolako Udaletxean fresko-mural bat pintatzeko lehiaketa.** Epaimahaiak 500.000 pezetako sari bakarra emango du. Lanak entregatzeko epea abenduaren 11n bukatuko da. Argibideak Antzuolako Udaletxean edo 943 76 62 46 zenbakian.

▶ **XIV. Arrasate Lehiaketak:** ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Mugaeguna:otsailaren 5a. Argibideak: 943 77 12 28.

▶ **Basalarrina** gazteentzako Laudioko II. bertso-paper lehia-

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

keta, 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Bertsoak aurkezteko epea abenduaren 1ean bukatuko da. Argibide gehiagorako 94 672 12 50 telefono zenbakira jo behar da.

# IKASTAROAK

▶ **Sevillana ikastaroa** Jam aretoan abendutik aurrera, eguenero, 16:30etik 20:00etara. 943 76 35 81.

# DEIAK

▶ **Bergarako Batzokiaren 20. urteurrena** ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, eguaztenean, hilak 29, Udalbiltza eta bake prozesuari buruzko hitzaldia izango da, 19:30ean, Miguel Altuna institutu zaharrean. Bertan Jon Jauregi eta Joseba Egibar izango dira hizlari. Abenduaren 3an egingo den bazkarirako izen-ematea Batzokian bertan egin daiteke. Bazkariaren aurretik ekitaldi politikoa izango da Xabier Arzallusekin.

▶ **Arizmendi topaketak** azaroaren 30ean, 18:30ean, Mondragon Eskola Politeknikoan, "Biteri" egoitza nagusiko aretoan. "Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua" liburua aurkeztu ondoren, Jose Antonio Pagola Donostiako Elizbarrutiko bikario nagusiak "Ba al du etorkizunik gizarte teknologikoan Jainkoarengan sinesteak?" izenburuko hitzaldia emango du.

▶ **Odol ateratzea** eguaztenean, hilak 29, 18:30ean Seminarioko lokalean.

▶ **Gazte lokala**ren aldeko mugimenduak eguakitzero, 19:00etan, Gaztetxean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

▶ **Orfeoi Gaztea** eta **Orfeoiaren** Santa Zeziliako afaria bihar, zapatua, Antxonin.

▶ **Egoitza alargunen elkartekoen** urteroko bazkaria abenduaren 8an Antxonin. Izen-ematea elkartean bertan.

# KINTADAK

▶ **1927**an jaiotakoen bazkaria azaroaren 26an, Antxonin, 14:30ean. Aurretik, 13:00etan, hildakoen oroimenezko meza Santa Marinan. Izen-ematea Antxonin (2.000 pezetako depositua).

▶ **1933**an jaiotakoen bazkaria azaroaren 26an, Torrekua jatetxean. Aurretik, 13:00etan, meza Santa Marinan. Izen-ematea (1.000 pezetako depositua) Torrekuan edo Intxortan.

▶ **1977**an jaiotakoen bazkaria abenduaren 2an, Zabala jatetxean. Izen-ematea Etxagin hilaren 26ra arte.

▶ **1951**n jaiotakoen afaria abenduaren 2an, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izen-ematea Euskadiko Kutxan azaroaren 29ra arte.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**

**Leyenda urbana 2**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

**La gran vida**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**La leyenda del pianista en el Oceano**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**La gran vida**
Eguakitza: 21:30.

**Snatch, cerdos y diamantes**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Amaia**

**El coronel no tiene quien le escriba**
Eguena: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**

**Lo que la verdad esconde**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**El bar Coyote**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**Space cowboys**
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**OÑATI. Santana**

**Beldurrezko zine maratoia**
Eguakitza: 22:00.

**Leyenda urbana 2**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### LEYENDA URBANA 2

**Zuzendaria:** John Ottman.
**Aktoreak:** Jennifer Morrison, Mathew Davis, Joseph Lawrence. ▲ 13 URTE

*Amy*, *Travis* eta *Graham* zinemagintza ikasten ari dira unibertsitatean eta euren tesirako pelikula bat filmatu beharko dute. *Amy* eta bere taldea beldurrezko filma filmatzen hasten direnean, gauza arraroak eta istripuak gertatzen hasiko dira, errealitatea eta fikzioa nahastuz...

### LA GRAN VIDA

**Zuzendaria:** Antonio Cuadri.
**Aktoreak:** Salma Hayek, Carmelo Gomez. ▲ 13 URTE

*Martin*ek (Carmelo Gomez) bere buruaz beste egitea erabaki du, baina azken momentuan bere lagun batek mailegu bat eskatzea eta pare bat astetan bizitzako plazerrekin gozatzea proposatuko dio. *Lola* (Salma Hayek) ezagutzen duenean, gauzak erabat nahastuko zaizkio.

### LA LEYENDA DEL PIANISTA...

**Zuzendaria:** Giuseppe Tornatore.
**Aktoreak:** Tim Roth, Melaine Thierry. ▲ 13 URTE

Giuseppe Tornatore zuzendari italiarraren (*Cinema Paradiso*) azken filma XX. mendeko hasieran girotuta dago, eta Europatik Estatu Batuetarainoko bidaia itsasotik egiten zutenen istorioak kontatzen dizkigu. Horietako itsasontzi batean bere bizitza osoa emango du pianista batek, itsasontzitik irten ezinik...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

**ESCEPI programa gauzatzen ari da Aranzadi Ikastolan. Programa 10 urteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta euren arteko harreman pertsonaletan izan ditzaketen arazoak nola konpondu irakastea du helburu.**

# AITZIBER MUGIKA
Psikologoa

# *"Harreman pertsonalei garrantzia eman behar zaie ikastetxeetan"*



Ikastetxeetan horrelako programak beharrezkoak direla uste du Mugikak.

**G.** Zertan oinarritzen da programa?

**E.** ESCEPI izena du. Umeei euren arteko arazoak nola konpondu irakasteko programa bat da. Umeei hainbat estrategia jartzen zaizkie esku artean euren arazoak konpondu ahal izateko. Programak sei helburu ditu: lehenengoa, umeek arazoa identifikatzea da, hau da, egoera baten aurrean umeek arazoa dagoen edo ez jakitea. Guk arazotzat zera jotzen dugu: umea emozionalki ondo ez dagoenean; haserre, triste... dagoenean. Bigarren helburua, behin arazoa zein den jakiterakoan, arazoa deskribatzea da. Hirugarrena, arazoa konpontzeko alternatibak sortzea. Laugarrena, alternatiba horiek izango lituzketen ondorioak aurreikustea. Bosgarrena, alternatiba guztien artean bat aukeratzea. Hori bai, onura gehien eta kalte gutxien ekarriko duen alternatiba izan behar da. Seigarrena, eta azkena, alternatiba garatzeko plana egitea da.

**G.** Nola garatzen dituzue urratsak?

**E.** Adibideetaz baliatzen gara. Diapositiben bidez umeen arteko arazoak isla ditzakeen egoerak azaltzen dizkiegu neska-mutikoei. Diapositiba batean honakoa ager daiteke, esaterako: ume bat ziburuan jarri nahi da. Bi ziburu daude eta bat apurtuta. Osorik dagoen ziburuan eseritzera doala, beste ume bat aurreratzen da eta tokia hartzen dio. Egoera hori erabilita, aurreko sei urratsak garatzen saiatzen gara.

**G.** Zein adinetako neska-mutikoei zuzenduta dago?

**E.** Lau eta hamar urtekoei. Hala ere, nik bosgarren mailako hiru taldetan jarri dut praktikan. Hamar urteko neska-mutikoetan, azken batean. Astean ordu batez egongo naiz talde bakoitzarekin.

***"ESCEPI programaren helburua umeei estrategiak irakastea da, harremanetan dauden arazoak konpontzen ikasteko"***

**G.** Egoerekin hasi baino lehen, talde horietan hainbat inkesta egin dituzu.

**E.** Hiru test egin ditut talde bakoitzean. Lehenengoa, programarekin hasi aurretik egin beharrekoa da, izan ere, programan ikasiko dituzten gaietan oinarritzen da. Bigarrena, hainbat egoera eman eta horien aurrean hartuko zuketen jarrera azaltzean oinarritu da. Azken batean, euren jokaera zein den jasotzeko. Hirugarrena antzekoa izan da, hala ere, eskola barruko jarduerara egokituta.

Programa amaitu ostean, berriz egingo ditugu aipatutako hiru testak, programak eraginik izan duen edo ez neurtzeko.

**G.** Beharrezkoak dira ikastetxeetan horrelako programak?

**E.** Oso aberatsa ikusten dut. Hezkuntzan hutsune handia nabaritzen dut horrelako gaietan. Matematika, fisika... oso garrantzitsuak dira eskolan, baina harreman pertsonalen munduari ez zaio behar bestekoa ematen nire ustez. Kontuan izan behar da, gainera, harreman pertsonalak bizitzako parte oso garrantzitsua direla.

**G.** Behin programa amaituta, zer dator ondoren?

**E.** Azken batean, umeek errealitatea nola analizatzen duten eta arazoei aurre egiteko zein errekurtso duten ikusiko dugu. Betiere, pentsatuz programaren azken helburua umeei estrategia batzuk irakastea dela, bizitza arruntean nola baliatu izan dezaten. Izan ere, guztiok aurkitzen gara behin baino gehiagotan konponbiderik aurkitzen ez diogun arazoren batekin. Umeei arazoak nola konpondu irakatsi nahi zaie.

# Udala, bailarako industrialdeak batu eta elkarte bakarra osatzearen alde

## Debagoieneko Industrialdea SA deituko da elkarte berria

**Joan zen astelehenean egindako osoko bilkuran eman zion udalak oniritzia bailarako industrialdeen bategiteari. Debagoieneko Industrialdea SA izango du izena, eta otsaila edo martxorako eratuta egongo da. Ondorioz, Bergara, Aretxabaleta eta Oñatiko industrialdeak elkarte bakarrean batuko dira.**



Elkarte berria otsaila edo martxorako eratuko da. ARTXIBOA

Elkartea osatzeko urriaren 31n Mankomunitatean egindako alkateen bileran, kronologikoki bete beharreko urratsak adostu zituzten. Lehenengoa, gaia udal bakoitzeko osoko bilkurara eraman eta bertan onartzea izan zen. Hori horrela, Bergaran astelehenean egindako ezohiko plenoan bozkatu zen. Alderdi politiko guztiek aldeko botoa eman zuten, eta, ondorioz, Bergarako Udala elkarte bakarra sortzeko prest azaldu da.

**DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA SA**

Horixe da elkarte berriak izango duen izena. Bergara, Aretxabaleta eta Oñatiko industrialdeak batu egingo dira, eta bailara mailako elkarte berria sortuko dute, Debagoieneko Mankomunitateko udalentzat: Debagoieneko Industrialdea SA.

Ondorioz, udaletako industrialdeak desagertu egingo dira. Ez, aldiz, Bergarako Bihargintza bezala, ekonomia sustatzeko sortutako herri enpresa publikoak.

**OTSAILA EDO MARTXOA**

Otsaila edo martxorako eratuta egongo omen da elkartea. Eratze bidean, erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzte udalek. Kontuan izan behar da, industrialdeen kasuan udalei %24,5eko partaidetza dagozkiela. Gainerakoa honela banatzen da: %24,5 Diputazioari dagokio eta %51 Sprilurri. Orain, udalei dagozkien %24,5, udal bat baino gehiagoren artean banatu beharrekoa denez, banaketa egiteko irizpideak adostu beharko dituzte.

Debagoieneko Industrialdea SA-ren lehenengo asmoetako bat, erabilera industriala emateko lurra bilatzea izango da, betiere eskualdeko herri guztiak kontuan hartuta.

Elkarte berriak Debagoienean lurzoru eta sustapen industrialaren garapenerako ondorio onuragarriak izango dituela aurreikusten dute oniritzia eman dioten udalek.

# Algodonerak ehuna ekoizten jarraituko du

**Tavex** taldeko zuzendaritzak eta sindikatuen ordezkariek joan zen martitzenean egindako batzarrean Gabiriako lantegiaren inguruko hainbat erabaki hartu zituzten. Batzarrean espediente berria sinatu zuten, eta horren arabera, ez da Algodonerako produkzio guztia bertan behera geratuko sindikatuetako ordezkari baten esanetan: hogeita bost ehungailu izango dituzte, eta baita 12 langile ere. Gainerako hemeretzi ehungailuak Valentziako lantegira eramango dituzte. 12 langileek datorren urte osoa ere Gabiriako lantegian emango dute, eta milioi eta erdi metro tela egingo dute. Beste 12 langile, hari-makinetan aritzen direnak, Elorregiko lantegira joango dira.

Bestalde, datorren astean 40 langilek utzi egingo dute Tavex taldea aurreerretiroarekin.



Enrique Garran taldeko zuzendariak martxoan aurkeztu zuen sustapen plana.

# "Badihardugu" herri hizkera bultzatzeko elkartea, sortu da

**Azken hilabeteotan**, Deba bailarako hainbat euskaltzale Eibarren elkartu, eta Badihardugu Alkartia sortu dute. Helburu nagusia, Deba ibar osoko euskaltzaleen indarrak batu eta herri hizkera bultzatzea da. Elkarteak eguazten eguardian egin zuen prentsaurreko aurkezpena Arrasaten.

Aurkezpenean azaldutakoaren arabera, elkartearen asmoak lau dira: lehenengoa, herri hizkera prestigiatzea eta konplexuak baztertzea; bigarrena, herri hizkeraren corpusa batzea eta euskara estandarrean bere lekua ziurtatzea; hirugarrena, hizkera hori aztertuz eta indartuz, euskara bera sendotu eta aberastea; laugarrena, estatusaren inguruan transmisio naturala eta kulturala bultzatzea.



Juan Martin Elexpuru, elkarteko kidea, aurkezpenean. ARRASATE PRESS

**SORRERA-BATZARRA**

Badihardugu, aurreko guztia gauzatzeko egin beharrekoak bideratzeko asmoarekin jaio da. Dagoeneko 30 lagun inguru ditu, Debabarrena eta Debagoieneko herri guztietakoak. Bihar, zapatua, goizeko 9etan, sorrera-batzarra egingo du elkarteak Eibarko Kultura Etxean. Batzarrean, estatutuak, egoitza eta karguak onartuko dira. Bestalde, euskalkian idazteko irizpideen behin behineko txostena ere adostuko dute.

Azaroa aldera jardunaldiak antolatzeko asmoa ere azaldu zuten taldeko kideek.

# Gizartekintzako doako telefono arreta zerbitzua adinekoendako

**Gipuzkoako** Foru Aldundiko Gizartekintza sailak, adineko pertsonei zuzenduta, doaneko arreta zerbitzua jarri du abian. Zerbitzuak "Zilarrezko zenbakia" du izena; izan ere, telefono deietan oinarritzen da. Horrela, bereziki horretarako prestatutako Nagusilaneko hainbat boluntariok erabiltzaileen deiei zuzenean erantzungo diete.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera da, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zilarrezko telefonoa hauxe da: 900 71 37 71.

Doako telefono zerbitzuaren bidez, honakoa lortu nahi du Foru Aldundiak: adineko pertsonen deiak jasotzea, zenbait adinekok bizi duten bakardade egoera arintzea, pertsona horien isolamendu egoera haustea, ziurtasuna, laguntza eta norabidea eskaintzea, beraiekin zuzeneko harremana izatea, eskaintzen diren zerbitzuen berri ematea, jasotako eskariak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara eta Osakidetzara bideratzea, eta, ahal den neurrian, beraien eskariei erantzuna ematea.



ARTXIBOA

Zerbitzua adinekoei zuzenduta dago.

## ELAk Aranerrekako ekintza gaitzetsi du

**ELA sindikatuko** Deba bailarako batzordeak gaitzestu egin du hilaren 15 eta 16 artean ertzain baten autoari egindako ekintza, erredakziora igorritako nota batean azaltzen duenez. Era berean, ELAko militantea den ertzainari, bere familiari, eta lankideei elkartasuna adierazi nahi diote. Bestalde, indarkerian eta inposaketan oinarritutako bideak, etikoki onartezinak izateaz gain, herri honen bakea eta normalizazio politikoa oztopatzen dutela dio sindikatuak bere oharrean.

## Gabonetako argiak hiru milioi pezeta

**Hiru milioi** pezetan esleitu da Gabonetako argiteriaren instalazioa. Ilanor enpresa arduratuko da argiak kaleetan jartzeaz. Abenduaren 16tik aurrera jarriko dira argiok, eta 2001. urteko urtarrilaren 11ra arte egongo dira.

## Kontzentrazioa San Martin plazan

**Eguaztenean,** hogeita hamar lagun inguru kontzentratu ziren San Martin plazan, 12:00etan, ETAren azken atentatua salatzeko asmoz. Talde armatuak Ernest Lluch, osasun ministro sozialista hil zuen bi tiroz, martitzen gauean, Bartzelonan.

# Ofizialtasuna eskatzeko Ezabaketa eguna egin zuen EHEk zapatuan

**Euskal Herrian Euskaraz** taldeak deituta, "Hizkuntza zapalkuntza ezabatu, ofizialtasuna gauzatu" leloarekin Ezabaketa eguna egin zen zapatuan. EHEk hainbat pankarta jarri zituen epaitegian, anbulatorioan, Herriko Etxean, Ipintza eta M. Altuna institutuetan eta Correosen; taldearen hitzetan euskararen presentzia txikia den arloetako egoitzetan. Baita euskararen ofizialtasun erreal eta osoaren aldeko martxa egin ere.



Miguel Altunan moduloak euskaraz eman daitezen pankarta jarri zuten.

Ezabaketa egunaren helburua euskaldunok gizarteko hainbat sektoretan jasaten dugun hizkuntza zapalkuntza salatzea izan zen. EHEren arabera, euskara, oraingo egoeran, bere normalizaziorako behar duen gutxienetik behera dago. Hizkuntzaren egoera Euskal Herri osoan tamalgarria dela ere azaldu du euskararen aldeko taldeak. Hori horrela, euskarak gizarteko arlo guztietan benetako ofizialtasuna behar duela gaineratu du.

## Drogamenpekotasun prebentzioa

**Drogamenpekotasunen** Prebentzioa-Osasunaren Heziketarako Programaren bigarren saioa datorren eguaztenean, hilak 29, izango dela gogorarazten die udaleko Gizarte Ongizate Sailak DBHko 3 eta 4. mailako, eta HSAOL 1. mailako ikasleen gurasoei. Programa zinemaren bidez egiten da, eta lau filmatan oinarrituko da. Istorioak, gizartean eta familian garrantzi handikoak diren hezkuntza, osasuna eta drogamenpekotasunen gainean ikasten laguntzeko abiapuntu baliagarri dira. Eguaztenean "Get Real" filma eskainiko da, 18:30ean, Novedadesen.



# Berrigara

431 zenbakia.
2000ko azaroaren 24a.

**Irizar jauregia. Barrenkalea 33.**
**20570 Bergara.**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Posta elektronikoa:**
**berrigara@topagunea.com**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate.
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Juan Martin Elexpuru.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Goio Arana.

Tirada: 5.400 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** · **Gipuzkoako Foru Aldundia** · **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### GURE HERRIAN ATZERRITAR

Aspalditxotik entzuten ari garenez, euskararen etorkizuna ez dago batere argi. Hainbat pertsona ezagunek euskara hainbat arlotara zabaltzeko beharra azpimarratu dute, administrazio eta lan mundura, besteak beste. Inongo exageraziorik egin gabe baiezta daiteke etorkizuneko gure lurraldean euskarak bizirik irauteko gaur egun nozitzen duen egoerari buelta eman behar zaiola, ezin duela benetako egoera ofizialik gabe eta hainbat sektoretan lekurik izan gabe jarraitu.

Alta, hainbat hizkuntzalari, euskaltzale, politiko etab.en gomendio eta exijentziei muzin egin eta politikari espainolzale eta frantseszaleek euskararentzat lege geriza egoki eta aurrerakoi bat egin beharrean, gure lurraldean kanpotar gisa tratatuak izatera kondenatzen gaituzte.

Jadanik euskarari ia arnasa hartzen ere uzten ez dion legeria (iparraldean hizkuntza bezala onartzen ez duena, Nafarroa garaiko ofizialtasun eza eta sasi ofizialtasuna eta EAEko gaizki deituriko koofizialtasuna) ere aldatzera doaz politikari espainiarrak, eta ez onerako, gainera.

Beraien tolerantzia, demokrazia etab.en tamaina agerian jarriaz, jadanik Nafarroako zenbait tokitan euskara desagertzera kondenatu duen legediaren (Vascuencearen legea) aldaketak hainbat egoera lazgarri ekarriko digu epe motzera. Beraien ahoetatik hainbestetan ateratzen diren giza eskubideak zapalduz (hizkuntz eskubideak kasu honetan), hainbat udaletako euskara ordenantzak desagertaraziz, gure hizkuntza komunikazio ofizialetatik kanpo utziz, euskara merezimendu gisa ez onartuz... Hori da euskara desagertzea helburu duen politikaren gaur egungo isla garbiena Nafarroa Garaian.

Nafarroan laster martxan jarriko den legedi honen erantzuleei hortzak erakutsi behar dizkiegu, bestela, gure lurralde guztian euskararen aurkako jenozidioari bide egingo diogu.

Ildo beretik, eta, berriz ere, bereziki PNVren jarrera salatu beharrean gara, tamalez. Euskara eta Euskal Herriaren etorkizuna kolokan jartzen dute bere alderdikeriek. Euskararen defentsan eta zabalpenean jardun beharrean, euskararentzako horren baliagarria izan behar zen Udalbiltza blokeatu dute.

Nahikoa da, utzi alderdikeriak eta ekin lanari!

*Bergarako*
*Euskal Herrian Euskaraz*

### POBREZIA ETA ABERASTASUNA

Ehunka milioi gizaki goseak eta ur garbirik gabe, eskolarik eta sendagilerik gabe behar gorrian bizi dira. Eta jakin, badakigu, batzuen pobrezia eta besteon aberastasuna lotuta daudela, ez direla halabeharraren ondorio.

Bidezko merkataritza antolamendu bidegabeko honi aurre egiteko herritarrek sorturiko mugimendu bat da. Bere egitekoen barne daude, adibidez, Hirugarren Munduko nekazari eta artisau txikiek ekoizturiko produktuak gure artera ekartzea eta behartsuenen esplotazioarekin aberasten diren enpresak salatzea. Baina, hori lortzeko pertsonak behar dira: pertsonak bidezko merkataritzako dendak zaintzeko, bidezko merkataritza zer den ezagutzera emateko, kanpainak aurrera eramateko etab.

Hona hemen alferrikako ezintasun sentimenduetan ezkutatu nahi ez duenarentzako aukera: bailarako hirugarren munduko taldeon artean sortu genuen duela bi urte Arrasateko Eroskin dagoen bidezko merkataritzako denda. Mundu bidezkoago baten alde zerbait egin nahi duenak hara jo besterik ez du, ongi etorria izango da eta seguru elkarrekin hainbat gauza egin ahal izango ditugula.

*Harreman, Bidezko*
*Merkataritza Denda*

## **tira biraka** gorka ortega & jon alvarez



## atrebentzia ezpada

### *Gabonetan parkin publikoa irikiko da; bestalde, TAO jarriko ei da. Horrek konponduko dau aparkatzeko arazua?*



**Gurutze Altzerreka**

Zeozeren biharra badagola uste dot, arazo haundixa dago-eta. Horrek baleike arazoa zertxobait konpontzia.



**Dorleta Bolinaga**

Nik uste dot baietz. Hala be, nik neuk garajia daukadanez, ez dot arazo hori bizi.



**Bizente Okina**

Askorik ez, baiña zeozer zeozer konponduko dabela pentsatzen jat.



**Arantxa Peña**

Bai, nik uste dot zerbaitetan eragingo dabela. Ez da erreza arazo hori konpontzia, baiña nik uste dot pixka bat konponduko dala.



**Aitor Arakistain**

Ez. Tasak igotzen dittuzte, eta aparkalekuak, berriz, kendu. Gertatzen dena da ez dagoela aparkatzeko tokirik herrixan.



**Eulogio Diez**

Ez, asko ez behintzat. Zerbait igual bai, baiña ezer gutxi.

## bai, esan!

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### PILOTA JAIALDI GUTXI BERGARAKO FRONTOIAN

**Jesus Azkaratek** deitu digu kexa bat plazaratzeko asmoarekin. Jesus pilotazale amorratua dugu eta bere ustetan aspaldi honetan Bergarako pilotalekua oso gutxi erabiltzen da. Udalak Asegarce eta Aspe pilota enpresekin sinatutako akordioa herriko zaleen onerako izan ote den zalantzan jartzen du Jesusek. Bere iritziz, lehen mailako pilotaleku bat izatetik, bigarren maila batean egotera pasa da Udal Pilotalekua. Hori konpontzeko eta, esate baterako, Arrasateko Uarkape pilotaleku berriak Bergarakoari protagonismoa kendu ez diezaion, udalari eskatu nahi dio herriko pilota zaletuen interesak defenda ditzan, ea pilota jaialdi erakargarriak antolatzeko ahalegin berezia egiten duen.

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

IRURAK PINTURAK S.L.
ERA GUZTIETAKO LANAK · PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA · HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA · IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Sendabelarrak
Dietetika
HURBIL
Aukera biologikoa!
- Prebentzio neurriak osasunari begira.
- Elikagai biologikoak : barazkiak, frutak, esnea, lekariak...
- Kontsultak
- Sendagile naturista: zirkulazioa, erreuma, kolesterola...
- Pisuaren kontrol pertsonalizatua: koipe eta likidoen neurketarekin.
- Masajista
Irala z/g. 943 76 30 08

# Bazkaria Mizpirualden



**Mizpirualdeko egoitzaren asteari amaiera emateko**, bazkaria izan zen zapatuan. Bertan **120 lagun** izan ziren, tartean **Kontxi Irizar** zinegotzia, **Ines Etxeberria** Ongizate Zerbitzukoa, **Lorentzo Laskurain** San Joxepe elkarteko ordezkaria, **Gregorio Iruretagoiena** Mizpirualdeko zuzendaria, eta **Alazne Irazabal** gizarte laguntzailea. Giro ona izan zen nagusi, eta primeran bazkaldu ondoren, dantzaldia izan zen. **Xamatz** dantza taldeak ere saioa eskaini zuen.

# UNEDeko ikasturtearen hasiera




Joan zen eguakitzean UNEDeko **2000-2001 ikasturteari hasiera** ofiziala eman zitzaion Udaletxeko pleno aretoan. Bertan izan ziren, besteak beste, **Luis Mari Bandres** diputatua, **Jesus Prieto** UNEDeko errektoreordea, **Victoriano Gallastegi** Bergarako alkatea, eta **Juan Jose Alvarez** Bergarako UNEDeko zuzendaria. Era berean, **Santiago Agirretxe** Ingeniari Industrialen Ikastetxeko zuzendariak, Madril, Bartzelona eta Sevillako eskolekin batera UNEDek ingeniari industrialak prestatzeko orduan, bere garaian izandako garrantzia ekarri zuen gogora irekitze-hitzaldian. Aurten 1.500 ikasle matrikulatu dira Bergarako UNEDen eta eguakitzean joan zen urtean lizentziatutako **45 laguni tituluak** entregatu zitzaizkien. Ekitaldia aprobetxatuz **EHk enkartelada** egin zuen Plazan, eta **Beasain-Bergara** errepideak lau errai izatea aldarrikatu zuen.

# Arauak ikasten

Bergarako **lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek** zirkulazio arauak ezagutzeko klase teorikoak eta praktikoak izan dituzte egunotan. Seinaleak ezagutu eta kalean zein errepidean ibiltzeko oinarrizko arauak jaso dituzte ikasleek Ertzaintzako bi kideren eskutik. Era berean, Udal Pilotalekuan izan diren eskola praktikoetan **triziklo elektrikoetan** ibiltzeko aukera izan dute, gidariei eta oinezkoei dagozkien eskubideak hobeto ezagutzeko. **Herriko Udaltzaingoak** ere kolaboratu du kanpainan.





# Aromaterapia ikastaroa

**Jardun** elkarteak antolatutako aromaterapia ikastaroan **40 lagun** inguru ari dira, batzuk astelehen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara, eta beste talde bat eguazten eta eguakitzetan, 15:00etatik 17:00etara. Joan zen astean jarri zen ikastaroa abian eta **Itziar Salegi** aromaterapeuta da irakaslea. Itziarren eskutik, olio esentziak, masajeak emateko lozioak, kremak, txanpuak eta beste hainbat produktu aztertuko dituzte. Azken batean, usaimena landu beharko dute. Ikastaroa abenduaren 15ean bukatuko da.

**Jesus Mari Zornozak autoendako errekanbioak saltzen dittu, Txornon, bere dendan. Orain dala hamahiru urte iriki zeban denda hau. Jesus Marik 41 urte dauzka, ezkonduta dago eta seme bat dauka.**

# *Jesus Mari Zornoza*



**Zure lanetik zer da gehixen gustatzen jatzuna?**
Jendia atenditzia, jendiakin harremanetan egotia.
**Eta gutxien?**
Bezero desatsegin bat etortzen danian, haura aguantatu biharra.
**Aldatuko ziñuke lanez?**
Ez, gustora nago.
**Aldatzekotan, zertan lan egin nahi ziñuke?**
Kotxien tailerren baten.
**Txikittan zer izatia nahi ziñuan?**
Ez neban sekula ezertan pentsatu.
**Nundik hartu ziñuan "Txorno" izena?**
Zornoza abizenetik, aspaldittik dator, nere anaiari be Txorno esaten dotse.
**Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?**
Frontoian jokatzia; frontenisian, palan...
**Pelotaririk gustokuena?**
Julian Retegi.
**Liburu bat gomendatzekotan?**
Ez daukat irakurtzeko denporarik, ezta ohitturarik be.
**Pelikula bat?**
"Los siete magníficos".
**Aktore edo aktoresa bat?**
Sean Connery asko gustatzen jat.
**Bizitzeko toki bat?**
Bizi naizen tokixa: Bergara.
**Nora egingo ziñuke bidaia bat?**
Irla galdu batera, Karibe aldian.
**Egunkarixa, irratixa ala telebista?**
Telebista; egunkarixa be irakurtzen dot.
**Egunkarixa egunero irakurtzen dozu?**
Bai, ixa egunero.
**Telebistako saio gustoko bat?**
Pelikulak gustatzen jat gehixen.
**Zelan definituko ziñuke zeure burua?**
Pertsona oso lasaixa naiz.
**Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?**
Ni bezela, lasaixa izatia; eta zintzotasuna.
**Asteburorako plan ideal bat?**
Udan, esaterako, kosta aldera juatia.
**Asteko egunik onena?**
Domekia, zapatuetan be lana egitten dot-eta.
**Eta txarrena?**
Gaiñerako egunak, danak antzerakuak izaten dira; baiña, txarrena, astelehena.
**Urtaro bat?**
Uda.
**Bazkari edo afari ideal bat?**
Mariskua.
**Eta hori bustitzeko?**
Klaretia.
**Sukaldari ona zara?**
Bai, nahikoa ona.
**Zure espezialidadia?**
Mariskua.

Izkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

Ugarrixa merenderoa
Elosuko bidean
BERGARA
943 76 28 92


Bizkotxoak, erreilenoak eta tostoiak
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.

# Badator Goienkaria!

## Eskualde osorako astekaria datorren astean argitaratuko da

**Datorren eguakitzean, abenduak 1, komunikabide berria jaioko da: Goienkaria, Debagoieneko lehenengo astekaria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartean biltzen diren bailarako euskara elkarte guztien ekimenari esker, eskualde osorako egindako astekaria izango da.**

Goienak urte honetan bailara osorako bi komunikabide abiatzea zuen helburu. Batetik, Goiena Telebista, gaur egun, oraindik, Leintz aldean bakarrik ikusten dena, eta laster Antzuolara ere zabalduko dena. Bestetik, Goienkaria: Aramaio, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetako etxeetan doan banatuko den egunkari itxurako astekaria. "Gure asmoa Goienkaria lehenago abiatzea zen, baina idatzizko komunikabideen gaineko hausnarketa sakona egin dugu, eta horrek epeak atzeratu egin ditu. Edozelan ere, urte amaieran jaioko den arren, etorkizunean prentsa alorrean egin nahi dugunaren oinarriak finkatu ditugula esango nuke. Uste dut merezi izan duela gauzak ondo egiteko astia hartzea", esan digu Goiena elkartearen Zuzendari Nagusi Mikel Irizarrek.

### HERRIETAKO ETA ESKUALDEKO INFORMAZIOA

Bailarako tokian tokiko aldizkariek urteak daramatzate informazio lokala lantzen. Arrasate Press, Aretxagazeta, Berrigara, Ze Barri? (Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga), Goibekokale (Elgeta), Kontuola (Antzuola) eta Kontzejupetik (Oñati) informazioaren erreferentzia dira, bakoitza bere esparruan. Baina, eskualde osoan banatzen den euskarazko idatzizko komunikabiderik ez dago. Hutsune hori betetzera dator Goienkaria. Horregatik, herri aldizkarien osagarri izango da: hauek herriko berriak landuko dituzte eta Goienkariak, eskualdekoak. "Herriek egiten dute eskualdea, baina, era berean, eskualdea bera ere bada albiste sortzaile. Bestalde, badira herri guztientzako komunak diren erakunde, elkarte edo zerbitzuak, eta baita denentzako, aretxabaletarrentzako zein oñatiarrentzako, esaterako, interesekoak izan daitezkeen albisteak. Horiei eutsi nahi diegu", dio Eneko Azkarate Goienkariako zuzendariak. Eneko bergararra da eta hainbat urtetan Berrigarako zuzendaria izan da.

**Egunkari itxurakoa izango da, errotatiban eta prentsa-paperean inprimitutakoa**

**Eguakitzero, 20.000 ale inguru banatuko dira Debagoieneko herri denetan**

### ZELAKOA IZANGO DA?

Goienkaria A3 formatukoa izango da, hau da, bailarako herri aldizkariak baino handiagoa, egunkarien itxurakoa. Prentsa-paperean eta errotatiban inprimituko da. "Inprimatze kostuak askoz ere merkeagoak dira eta horrek egiten du bideragarri proiektua", diosku Mikel Irizarrek.

Goienkariak 24 orrialde izango ditu eta bi zatitan banatuko da: lehenengoan, asteko gai nagusiak, albisteak, elkarrizketak eta kirolak jasoko dira; horiekin batera, iritziak emateko eta eskelentzako tartea ere izango da. Bigarren zatian, Goienka2a izenekoa, kultura, aisialdia, agenda, zerbitzuak, denborapasa eta Goiena Telebistari buruzko informazioa jasoko da, besteak beste. Partikularren iragarki laburrentzat ere izango da orrialde bat. "Agendari eta zerbitzuen informazioari garrantzi handia emango diegu. Bailarakoaz gain, Gasteizeko eta auzo herrietako kultura agenda osatua jaso nahi dugu. Gainontzean, ohiko egunkari baten sailak izango ditu", dio Eneko Azkaratek.




# Erronka berri bat



**Edu Mendibil**
Berrigarako zuzendaria

BERRIGARA hamargarren urteurrena betetzear dagoenean, Debagoieneko euskarazko komunikabideon artean landutako Goienkaria datorkigu. Herriko notizietaz gain, bailaran gertatutakoak ere ezagutzeko aukera izango dugu datorren eguakitzetik aurrera eta poztekoa da komunikabide berri bat jaiotzea, gertuko informazioak azken urteetan hartu duen indarraren seinale.

Goienkariaren etorrerak, jakina, eragina izango du orain arteko BERRIGARA astekarian. Hala ere, BERRIGARA eta Goienkaria elkarren osagarri izatea da gure asmoa, irakurleei ahalik eta informaziorik osatuena eskaintze aldera. Herriko gaiei eutsiko diegu BERRIGARAN eta periodiku formatoko Goienkarian bailara mailakoek izango dute euren tartea. Erronka berria da guretzat eta ilusioz ekiten diogu etapa berri honi, guztiontzat aberasgarria izango delakoan. Datorren astetik aurrera, irakurleok duzue hitza.

Diseinuari dagokionez, "astekari erakargarria eta irakurtzera animatuko duena egin nahi dugu", diosku Goio Arana diseinu arduradunak. Goio Arrasate Pressko diseinatzaile eta maketatzailea izandakoa da urteetan. Orrialde batzuk, azala eta kontrazala, esaterako, koloretan inprimatuko dira. Gainerakoak, tinta bakarrean.

**DEBAGOIENEKO KAZETARIEK EGINA**

Eskualdeko herri aldizkarietan lanean dihardute edo ibili diren kazetari, komertzial eta maketatzaileek egingo dute Goienkaria. Hauek Debagoieneko herri guztietako kolaboratzaileen laguntza izango dute: iritzi artikuluak




Gure eskualdean sei herri aldizkari banatzen dira gaur egun.

idazteko, marrazkiak edo ilustrazioak egiteko edota beste hainbat sailtan idazteko. Eneko Azkaratek dioenez, "jende askok egingo du Goienkaria, herri denetako jendeak, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu, aldizkaria interesgarriagoa egiteko. Funtzionamendua zaildu egingo du, koordinazio lan handia eskatzen duelako, baina merezi duela uste dut".

Goienkariaren egoitza nagusia Bergaran egongo da, BERRIGARAko erredakzioaren ondoan, baina Arrasate Press eta Aretxagazetarekin lotuta egongo da, sare informatikoaren bitartez. Etorkizunean, Oñatiko ordezkaritza ere lotzea da asmoa. Intranetaren bitartez, artxiboak, informazioa, argazkiak etab. konpartitzeko aukera izango dute ordezkaritzek.



Martxoko hauteskundeen biharamonean banatu zen Goienkaria bereziak harrera ona izan zuen.

### ASTERO, ZUEN ESKURA

Goienkaria eguakitzero banatuko da, doan, Debagoieneko etxeetan. Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten, bertako astekariekin batera. Beste herrietan, bakarrik aldizkaririk ez dagoenean eta aldizkariekin batera hauek argitaratzen direnean. 20.000 ale inguru banatuko dira. Beraz, ale kopururik handieneko euskarazko astekaria izango da. Herri denetan antolatuko dira banaketa taldeak, herritarrek eguakitzero euren etxeko postontzietan jaso ahal izateko.

### IRAGARLEENTZAKO EUSKARRI PAREGABEA

Goienkaria Debagoieneko ia etxe guztietan banatuko dela esan dugu. Beraz, bailarako zein bailaraz kanpoko merkatzaritza-etxe, dendari, enpresa eta abarrentzako euskarri paregabea izango da. Herri aldizkarien finantzaketa biderik nagusietako bat publizitatea da eta Goienkariarekin bide horri eutsi nahi dio Goienak. "Euskarri berri bat eskainiko diegu merkatari, enpresa edota erakundeei; hau da, Debagoienean nagusi izango den komunikabide batean publizitatea egiteko aukera eskainiko zaie. Nor bere herriko aldizkarian egitea nahiago dutenak izango dira, baina bere mezu edo eskaintza eskualde osoko herrietara zabaltzeko interesa dutenak ere bai. Bakoitzak aukeratuko du", diosku merkataritza arloko arduradun Gotzon Arzelus bergararrak.<

## Egunkarira bidean

Lau dira Goienaren jarduera-arlo nagusiak: telebista, prentsa, irratia eta zerbitzu telematikoak. Landuen eta garatuen daudenak, telebista eta prentsa dira, nahiz eta egitasmoak bere osotasunean gauzatu barik egon oraindik. Lan-esparrua, ostera, Debagoiena da.

Prentsa arloari dagokionez, hausnarketa prozesu sakon batean murgilduta izan dira aurten herrietako komunikabide eta euskara elkarteak. Eskualde osorako komunikabide bat abiarazi nahi da, baina herrietakoei eutsiz. Hori dela eta, epe batzuk zehaztu dira. Hasteko, abenduaren 1ean Goienkaria argitaratuko da eta eskualdeko gainerako herri aldizkariekin batera banatuko da, hauek kaleratzen direnean. Datorren urteko maiatzerako, berriz, gaur egungo herri aldizkariak birmoldatu eta A3 formatura aldatuko dira. Lau edizio lokal sortuko dira: Bergarakoa, Oñatikoa, Aretxabaletakoa eta Arrasatekoa. Bergarakoan, bertako, Antzuolako eta Elgetako berriak jasoko dira. Oñatikoan bertakoak. Aretxabaletakoan, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aretxabaleta bertakoak. Azkenik, Arrasatekoan, Aramaiokoak eta Arrasate bertakoak. Mantxetei edo aldizkarien izenei eutsiko zaie eta lau edizioak astero argitaratuko dira, Goienkariarekin batera. Beraz, informazio lokala eta eskualdekoa txertatu egingo dira produktu bakarrean.

Etorkizunean, egunerokoa egitea da Goienaren helburua, baina horretarako bideragarritasun plana egin beharko da: finantzaketa, banaketa, langileak etab. ziurtatu beharko dira. Finantzaketa modu berriak eta eguneroko banaketa zelan egin aztertzeko, bi pertsona hartu dira. Datorren urteko udazkenerako erabaki nahi da egunkarirako urratsa eman edo ez.

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias eta Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 68. zenbakia. 2000ko azaroaren 24an.*

# Gaztetxokoa, gaztetxoen aukera

## Laugarren urtez, txokolatada batekin zabaldu zituen ateak Gaztetxokoak

**Herriko 10 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoek, zapatu eta domeketan badaukate nora joan eta arratsaldea pasatzeko aukera. Gaztetxokoan, ia denetik egin dezakete: futbolinean jokatu, mahai jokoetan, marraztu, irteera antolatuetara joan... Aurten beranduago ireki dute, baina denboraldiaren amaiera ez da ekainera arte iritsiko, Kalebarrengo jaiak baino astebete lehenago.**



*Zapatu eta domeka arratsaldeetan dago zabalik Gaztetxokoa.*

Gaztetxokoa Guraso Elkartearen ekimena izan zen, gaztetxoendako lokal baten beharra ikusten baitzuten. Jardun euskara elkarteak antzerako ekimena egiten zuen Bergaran, eta Guraso Elkarteak, udalaren laguntzaz, Jardunekin egin zuen hitzarmena. Duela gutxira arte Jardun zen Gaztetxokoko dinamizatzailea, baina begiraleak Antzuolakoak ziren; gaur egun, dinamizatzaile ardura herriko begirale taldeak du. Bestalde, Gurasko Elkarteak laga egin ditu Gaztetxokoaren ardurak eta orain udala da antolatzailea.

**EKINTZAK**

Gaztetxokoan, barruko zein kanpoko ekintzak egiten dira. Barrukoen artean, lehen aipatutako ekintzak daude, eta kanpoko ekintzetan, irteerak dituzte; bata urtarrilean egingo dutena eta bestea ekainean. Horrez gain, hondartzara eta mendira irtengo dira eta izotz pistara ere joango dira. Gaztetxokoa herrian gehiago inplikatzea nahi du, herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzea ere bultzatuko da.

Begiraleek diotenez, "gurasoen inplikazio zabalagoa nahi dugu, hau da, Gaztetxokoan egiten diren ekintzetan parte hartzera animatzen ditugu, beharrezkoa delako haurrak gurasoak elkarrekin ondo pasatzea eta aisialdiaz elkarrekin gozatzea".

**GIROA**

Gaztetxokoaren erabilpena zabala da, baita gazte kopuruan ere, ez baita berdina orain, udazken eta neguan, ibiltzen den pertsona kopurua eta udaberri edo udan ibiltzen dena. Hala ere, jende nahikotxo ibiltzen dela adierazi digute begiraleek.

Gazteekin orokorrean ez da arazo gehiegi egoten, "orokorrean ondo moldatzen gara, pixka bat zaindu behar dira, baina ez dute lan handirik ematen. Lokala gainera oso ondo dago, handia eta zabala da. Maristen eraikinean lanean hasiko dira abendu aldera eta behintzat ordura arte lokal horretan egongo gara".

Ordutegia honakoa da: zapatu eta domeketan arratsaldeko 16:00etatik iluntzeko 20:00etara. ■

■ ■ ■

**Gurasoen inplikazio zabalagoa nahi dugu, Gaztetxokoko ekintzetan parte hartzea**

■ ■ ■

# Jon Ezkurra eta Joseba Salaberria motorzaleak Enduro txapelketan

**Urretxun jaioa izan arren, ama antzuolarra dauka Joseba Salaberriak, Aitzagabasaldekoa. Jon Ezkurra, berriz, antzuolarra da, Ertzillakoa. Biek motorrak dituzte gustuko eta aurten Euskal Herriko Enduro txapelketa jokatu dute. "Junior trofeoko" txapeldun berria da Joseba. Jon, berriz, hirugarren gelditu da, txapelketa osoan zehar bigarren joan eta gero. Iaz bi proba jokatu zituzten eta aurten, lehenengo aldiz, txapelketa osoa. Guztira bost proba izan dira: Amurrion, Elgoibarren, Zallan, Gernikan eta Barakaldon.**



*Jonek eta Josebak aurten jokatu dute lehen aldiz Enduro txapelketa.*

Martxoan hasi zuten txapelketa eta azaroaren 12an amaitu zuten Barakaldon. 70 bat jokalari aritu dira eta juniorretan 30 bat lagunekin ibili dira. Enduro txapelketa zer den kontatu digute biek. "Mendiko motorrekin aritzen gara. Motorrak matrikulatuta daude eta argiak dituzte; aseguratuta daude. 90-100 km-ko lasterketak egiten ditugu 30 km-ko hiru zatitan banatuta. Horietako bakoitzeko beste zirkuitu batera sartu behar gara denbora kronometratzeko. Izan ere, 30 km-ko ibilbideetan motorrentzako berifikazio puntuak egoten dira eta guztietatik pasatu beharra daukagu, bestela zigortu egiten gaituzte. Ibilbide horiek denbora zehatz baten barruan egin behar izaten dira eta gero, sailkapenerako denbora neurtzeko, beste zirkuitu horretara sartu behar gara".

Lasterketa hauek abenturazaleentzat dira. "Asko inprobisatu behar dugu. Ibilbidea ez dugu aldez aurretik ezagutzen. Edozer gauza aurkitu zenezake bidean: enborrak gurutzaturik, sekulako aldapak, errekatxoak, errepidea... Erresistentzia eskatzen du eta oso erregularra izan behar duzu; sasoiko egotea eskatzen du. Horrez gain, mekanikaz ere jakin behar da, lasterketan ezer gertatuz gero norberak konpondu behar izaten du-eta".

4-5 orduko lasterketak izan dituzte denboraldian, baina Gernikakoa luzeagoa izan zen. "Espainiako txapelketako proba izan zen hura, baina Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria zen. Nahiko denbora ona egin genuen, baina oso gogorra izan zen: sei orduko lasterketa, Europako txapeldunekin batera. Euria egin zuen eta lokatza mordo bat zegoen. Gu nahiko ohituta gaude egoera horretan aritzera, baina oso gogorra egin zitzaigun". Hala ere, Josebak laugarren eta Jonek seigarren bukatu zuten.

**MENDIA GUSTUKO**

"Lasterketak gozatzeko izaten dira. Horrelakoak antolatzeko baimen asko behar izaten dira, baina dena kontrolpean egoten da. Imajinatu hogei bat motor Gaztelugainera igotzen bat-batean. Oinezkoendako errespetua izan behar da eta horretan saiatzen gara. Ez da jendeak uste duena. Guk mendia atsegin dugu eta zaindu egiten dugu".

Elgoibarko Txusko motorzale elkarteko kide dira bi motorzaleak. Umetatik motorrean ibili dira eta orain txapelketetan parte hartzen hasi dira. Babesle barik aritu dira eta gastu guztiak eurek ordaindu dituzte. "Ondo legoke babesleren bat bilatzea. Motorrak gastu asko ditu, konponketa asko behar dira-eta. Gainera izena ematea ere ordaindu egin behar da eta baita Federazioaren baimena ere". ■

Igor eta Txomin
Margoak orokorrean
ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

GOROSTi
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

AITZ-GARBI
taberna
jatetxea
Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

# Txistu kontzertua egingo da domekan

**Abenduaren 3an**, domekan txistu kontzertua eskainiko du herriko txistulari taldeak zine aretoan. Eguaztenean, Santa Zezilia izan zela eta, eskainiko du kontzertua. Egun horretan kalejira ere egin zuten herriko txistulariek euren eguna ospatzeko.

Domekako emanaldian txistulariekin batera beste bi saio ere egongo dira. Batetik, Antzuolako abesbatzak abestuko du eta bestetik, Bergarako musika eskolako Metal Boskotea.

Kontzertua meza ostean, eguerdiko 12:30ean, izango da zine aretoan.



*Meza ostean, kontzertua.*

## IRITZIA

### ETA ORAIN ZER

**Iñigo Ramirez de Okariz Telleria**

Elkarrik Antzuolan antolatutako mahainguruak izan zuen arrakasta ezin da ukatu, etorri zen jendetza ikaragarria izan zelako. Herriko sektore eta adin guztietako pertsonak izan ziren bertan parte hartzen, eta denoi bertara joatera bultzatu gintuen ideia bakarra itxaropenarena izan zen; hau da, tregoa bukatu zenetik nola berriro ilusioa eta bakea bueltatu herri honi.

Argi dago partidu politiko bakoitzak duela bere estrategia eta bakerako bere eskaintza. Badirudi ezkutuko elkarrizketa ere egon badagoela euren artean, baina eguneroko bizitzan gertatzen diren ekintza biolentoekin bat eginda, ez dugu uste konponbidea politikoen elkarrizketatik bakarrik etorriko denik.

Beraz, gu, mahaingurura joan eta joan ez ginenok, eskuak gurutzatuta gelditu behar gara? Badago gure aldetik beste zereginik? Agian bai, besterik ez bada baliabideak jarriz herri mailan elkartu eta hitz egiteko.

Eta hori nola egin? Edo, zergatik ez bere baitan adibidez Elkarri bezalako mugimendu batek hartu bide honen koordinaketa? Jendeak agian ilusioz hartuko luke, denok gaude bake egarria asetu nahian eta.

Herri mailan egin genezakeen bide honi ekiterakoan, ezin dugu urrats faltsurik eta itsurik eman. Helburuak ongi finkatzea eta metodologia ongi zehazteak dauka bide honetan ikaragarrizko garrantzia; garrantzia duen bezala norberaren buruari ere gogor egiteak eztabaida honetan parte hartzeko. Hau ez da politikoen lana soilik, talde sozial, ekonomiko eta kultural guztiona ere bada. Etorkizuna jokoan dagoenean, ezin diogu "paso" egin une honetan bizi dugun garai honi.

### GAZTAINERRE EGUNA, DOMEKAN

Udazkenero moduan, gaztainerre eguna ospatuko da domekan. Herriko plazan izango da arratsaldeko 18:30ean. Bertan, jakina, herritar guztiek jaian parte hartzeko aukera izango dute. Gaztainak bakarrik ez dira hartuko,ordea. Sagardoa ere banatuko da, 100 pezetan edalontzia; eta sagardoa herrikoa izango da, Bidaurre baserrikoa, hain zuzen ere.

### ZILARREZKO ZENBAKIA

Gizartekintzak, Hirugarren adinekoendako Gipuzkoako Diputazioko zerbitzuak, doaneko telefono zerbitzua jarri du abian.

Deiei bereziki horretarako prestatutako "Nagusilaneko" boluntarioek erantzungo diete. Baina zer eskaintzen du telefono horrek? Helburua adineko pertsonen deiak jasotzea da. "Zenbait adinekok bizi duten bakardade egoera arintzea, isolamendu egoerak haustea, ziurtasuna laguntza eta norabidea eskaintzea, eurekin zuzeneko harremana izatea, eskaintzen diren zerbitzuen berri ematea, jasotako eskariak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara eta Osakidetzara bideratzea, eta ahal den neurrian euren eskaerei erantzuna ematea".

Telefonoa 900 71 37 71 da eta deia doainekoa da. Ordutegia, berriz, honakoa: astelehenetik ostiralera, goizeko 10etatik 1era eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

### ZUZENKETA

Azaroaren 10eko *Kontuola*n argitaratutako erantzun bat zuzendu beharra daukagu. "Zein ondorioetara iritsi zinen mahai inguruaren ondoren?" galderaren erantzunetan, Gurutz Madariagak EAko kideak adierazi zuena ez zen "EA-tik garbi ikusten dugu ETA oztopo bat dela" baizik eta "ETA eta Espainiako gobernu zentrala direla oztopo".

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Arin JATETXEA
Euskal sukaldaritza
Eguneko menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

LEKU-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

Alaitz Jauregi eta Aitziber Goñi, zineko arduradunak

# *"Zinian ekintza asko egitten dira: hitzaldixak, antzerkixak, billerak..."*

**Udazkenero legez hasi da aurten ere zine garaia herrian. Aurten ere Alaitz Jauregi eta Aitziber Goñi dira zine aretoaz arduratuko direnak. Tartea, jakina, eurek aukeratuko dituzte pelikulak.**


*Aitziber etaAlaitz dira aurten ere zineko arduradunak.*

**Noiztik zarete zuek biok zineko arduradun?**

Bosten bat urte izango dira. Gu arduratzen gara pelikulak erostiaz, zinia domeketan zabaltziaz, takillia eta dirua kontrolatziaz eta gaiñera, beste ekintzetan be geu egoten gara arduradun: antzerkixetan edo hitzaldixetan, esaterako.

**Noiz amaituko da denboraldia?**

Abendu aldera kultur etxia barrutik bota eta aldaketak egin bihar dittu; horregaittik, abendura arte egongo da printzipioz zabalik; Gabonak ingurura arte. Udaletxia beste aretoren bat topatzen dabil domekeroko zine emonaldixekin aurrera jarraitzeko.

**Zeintzundako daude bideratuta zine emanaldiak?**

Gaztetxokokuendako pelikulak diranian, pelikulak ikustera jende gutxiago etortzen da, baiña egixa da 13-14 urteko jendia dala gehixen etortzen dana; erregularrenak eurak dirala. Horregaittik aurten, pentsau dogu, adin danendako moduko pelikulak ekartzia, txikixenendako be modukoak.

**Domekatik aparte, beste egunen batean, emanaldi berezirik egingo duzue?**

Ikusten badogu aukeria badagoela pelikula berriren bat jartzeko, ipiñiko dogu, baiña eztogu ahaztu bihar kasu hau apartekua izango dala.

**Zer moduz dago zine aretoa?**

Egixa esan, zine aretuan ekintza asko egitten dira, ez bakarrik pelikulak bota, baitta beste gauza asko be: fabriketako billerak, auzokidien billerak, teatrua, oraintxe egin dan txontxongilluen erakustaldixa...

Erabilpena oso zabala da. Gaur egun berogailluak eztau bihar daben moduan funtzionatzen eta nahiko areto hotza da, horregaittik espero dogu lanak egitten diranian zine aretua ekintzen maillakua izatia, hau da, berton egotia atsegiñagua izatia.

Azkenian, zinian egitten dira, herriko ekintza kultural eta sozial gehixenak eta eztogu uste hori ahaztu bihar danik. Gaiñera jendiak hartu du horretarako ohitturia. ■

■ ■ ■

*"13-14 urteko jendia da gehixen etortzen dana. Erregularrenak eurak dira"*

■ ■ ■

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**adituen esanetan**

# Ospelak



CRISTINA GARCIANDIA

*Dermatologoa*

*"Ospelak hotzak sortzen ditu. Azala gorritu eta handitu egiten da eta erresumina sortzen du odol gutxien heltzen den tokietan"*

Ospelak (*perniosis* hitzarekin ere ezagutzen den gaitza) hotzak sortutako lesioak dira. Egia esateko, kontsultan horrelako kasu gutxi ikusten dira, gaur egun ez baita oso ohikoa ospelak izatea. Hotzak eta hezetasunak eragin zuzena daukate ospelak agertzeko orduan eta, ondorioz, Erresuma Batuan edo Europa iparmendebalean askoz ere kasu gehiago izaten dira, berogailu zentrala erabiltzeko ohiturarik ez dutelako batik bat. Euskal Herrian, berriz, azken 30 urteetan nabarmen behera egin du ospelak jasaten zituztenen kopuruak, batez ere, etxe guztietan berogailua dagoelako eta jendea negu partean hobeto janzten delako gaur egun.

Ez da ezagutzen zergatik pertsona batzuri ospelak eragiten dizkien hotzak. Sintomak jakinak dira: azala gorritu eta handitu egiten da eta erresumina sortzen du. Ospelak odol gutxien heltzen den tokietan azaltzen dira, hau da, atzamarretan, behatzetan, belarrietan eta sudur puntan nagusiki. Adinak edo sexuak ez dute zerikusirik ospelak agertzerakoan, eta lehen aipatu bezala, hotza eta hezetasuna dira faktore nagusiak. Tenperaturak ez dauka zertan OºCtik azpikoa izan behar ospelak agertzeko. Normalean, hortik gorako tenperaturetan gertatzen dira kasu gehienak eta azken datuei begiratuz gero, haurrei gehiago eragiten die gaitz honek. Ospelak agertu eta handik astebetera edo pare bat astera desagertu egiten dira, baina ez dute azalean inolako orbainik uzten. Kasu larriagoetan babak eta ultzerak eragiten dituzte, larruazala harrotuz.

Prebentzioari dagokionez, ez dago sekretu handirik. Etxean epel egotea komenigarria da eta neguan jantzi egokiak eta sendoak erabiltzen baditugu (eskularruak, adibidez), askoz hobeto. Azken batean, nahiz eta gaitz larria ez izan, beharrezko neurriak hartu behar dira badaezpada, ospelak nahiko gogaikarriak baitira.



Ospelak behatzetan eta hatzamarretan agertzen dira nagusiki.

**bergarako errotak**



## IBARROLA ERROTA

Errota hau 1931n eraiki zen. Errota izateaz gain, zentral elektriko txikia ere izan zen, eta inguruko 11 baserri hornitzen zituen.

1934an alta eman zitzaion irin errota publiko bezala; Donato Osa Arancetaren izenean egon zen 1963. urtera arte (errota publiko izateari utzi zion urtea).

Inguruko auzokideen esanetan, azken errotaria Juanito Osa izan zen: 1979an hil zen, 53 urte zituela. Azken ehotzea 1969an egin zuten.

"Sagar-erreka"ko urak hartzen zituen: turbina bat zeukan harri pare bat mugitzeko.

KOKAPENA: Soraluzetik Maltzagarako bidean, lehen desbideratzean ezkerretara hartu, eta bide amaieran dago errota, Bergarako Goimendi auzoan.

Antxon Agirre Sorondo

# Bailarako kirol txartel bateratua sortzeko aukera aztertzen ari dira

**Eguaztenean, Debagoieneko Mankomunitatean egindako bileran, bailarako kirol teknikariek eta kirol zinegotziek bailara osorako kirol txartel bateratua egiteko aukera aztertu zuten. Datorren urteko maiatzean eta ekainean plan pilotu bat jarriko da ziurrenik, 2002. urteari begira txartel bateratua abian jar daitekeen hobeto ezagutzeko.**


Argazkian, Labegaraietako Kiroldegia.

Debagoieneko Mankomunitateak ohiko bilera egin zuen eguazten arratsaldean Bergarako Udaletxeko pleno aretoan. Bertan Kote Olaizola Diputazioko Gazteria eta Kiroletako zuzendaria kirol instalazioen bailaratzeaz hitzegitekoa zen. Hain zuzen ere, Debagoieneko kirol zerbitzuak kirol txartel bateratua egiteko proposamena aztertzen ari dira azken hilabeteetan. Eguazten goizean Arrasaten elkartu ziren Debagoieneko kirol teknikariak eta kirol zinegotziak gaia aztertzeko. Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko kirol teknikariaren hitzetan, "ikusten da borondate politikoa badagoela eta aspaldi ari gara kirol txartel bateratuaren ideiarekin. Karnet bakarrarekin bailarako kirol instalazio publiko guztiak erabili ahal izatea da gure asmoa eta ez dut uste etorkizunean horretarako arazorik izango denik. Hala ere, oraindik ez da ezer erabatekorik erabaki eta pausoz pauso joan beharko gara, teknikoki dauden oztopoak gaindituz".

Ugarteburuk azaldu digunez, "gaur egun Oñati, Arrasate eta Bergarako kirol zerbitzuetako bazkideek ordaintzen dute urteko kuotarik garestiena Aretxabaleta edo Eskoriatzako bazkideekin konparatuz gero; dena den, zerbitzu gehiago eskaintzen dituzte. Momentuz herri bakoitzak bere kirol bazkide txartel propioa izaten jarraituko du, eta, aurrerago, baliteke bailara mailako karneta atera ahal izatea.

**PLAN PILOTUA**

Datorren urteko maiatzean eta ekainean plan pilotu bat jartzeko proposamena dago. Herri bakoitzean Kirol Zerbitzuko bazkide txartela duten guztiek bailarako beste herrietako kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute bi hilabete horietan. Jasotako erantzuna, eta aukera berriak dituen alde onak eta txarrak aztertu ondoren, 2002. urteari begira proposamen zehatzago bat egingo da.

# Diapositiba emanaldiak datorren astean

**Pol-Pol** Mendizale Taldeak eta Udal Kirol Zerbitzuak mendiko diapositiba emanaldien ziklo bat antolatu dute datorren asterako. Astelehenean, hilak 27, Jon Belokiren eskutik, "Dunagari 98, Iparraldetik 1.go igoera" emanaldia izango da, 19:30ean, Kultura Etxean. Martitzenean, hilak 28, Leire Agirreren "Kirol eskalada" eskainiko da, 19:30ean, UNEDeko aretoan. Eguaztenean, Joseba Ugalderen txanda izango da. Ugaldek Afrikako irudiak erakutsiko dizkigu "Yambo-Kenia mendia" izenburuko proiekzioarekin, 19:30ean, UNEDen. Eta, azkenik, eguenean, ordu eta toki berean, Andoni Areizagaren "Paine Erdiko Dorrea" emanaldia izango da.

Bestalde, mendi astearen barruan ikastetxeetan deitutako marrazki lehiaketaren sari banaketa izango da eguaztenean, 19:30ean, UNEDeko aretoan.


Mendiko irudi ikusgarriak eskainiko dira mendiko diapositiben zikloan.

Era berean, domekan, azaroak 26, gazteen mendi irteera egingo da eta abenduaren 3rako gaztetxoen irteera iragarri da. Argibide gehiago Pol-Polen edo 943 76 48 51 telefonoan jaso daiteke.

Astelehenetik abenduaren 3ra bitartean eski eta mendi materialaren azoka txikia izango da Pol-Polen.

# Bergarak Realari irabazi zion zapatuan Agorrosinen

**Hirugarren mailako** Bergarako futbol taldeak 1 eta 0 irabazi zion zapatuan Real Bi Agorrosinen. Juanina Garairen taldeak partidu ona jokatu zuen eta merezimendu osoz lortu zuen garaipena. Realak denboraldiko lehen partidua galdu zuen zapatuan. Bergara sailkapeneko lehen postuetan diren Lemoari eta Realari irabazi dien talde bakarra dugu. Lemoak eta Realak Agorrosinen bakarrik galdu dute aurtengo denboraldian. Jokalariak, entrenatzaileak eta zuzendaritzakoak ere pozez gainezka ziren zapatuan partidu amaieran.Sailkapeneko zazpigarren tokiari eutsi diote mahoneroek. Bergarak 19 puntu ditu eta domekan sailkapeneko azken tokietan dagoen Soduperen aurka jokatuko du. Ondoren, Zalla taldea hartuko du etxean.



Argazkian, Gorka San Vicente baloia kontrolatu nahian zapatuko partiduan.

# Gipuzkoako gazte mailako itzulia Bergaran bukatuko da ekainean

**Lokatza** Ziklismo Eskola abian jarri zela 25 urte beteko dira datorren urtean. Hori dela eta, ekainaren 25ean gazte mailako Gipuzkoako Itzuliaren azken etapa Bergaran jokatuko da. Bestalde, bazkide kanpainan parte hartu nahi dutenek zuzendaritzarengana edo San Martin plazako bulegora jo dezakete. Ohiko tokietan Gabonetako loteria salgai dago.



Gazte mailako txirrindulari onenak Bergaran izango dira ekainaren 25ean.

## karteldegia

**FUTBOLA**
**Bergara-Santo Tomas Lizeoa**
Ohorezko jub. Zapatua. 15:30. Agorrosin
**Bergara-Amaikak Bat**
Bigarren erregionala. Zapatua. 17:30. Ipintza
**Bergara-Aurrera Ondarroa**
Ohorezko kadeteak. Domeka. 10:00. Ipintza
**Bergara-Idiazabal**
Lehen mailako jub. Domeka. 11:30. Ipintza

**ESKUBALOIA**
**Bergara-Jauja**
Senior mutilak. Domeka. 12:00. Kiroldegia

**PILOTA**
HERRI MAILAKO TXAPELKETA
**Jon Larrañaga-Jokin Oregi** (infantilak)
KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA
**Bergara-Azkoitia**
(lehen mailako jubenilak eta seniorrak)
Gaur, eguakitza, 19:30ean Udal Pilotalekuan

## emaitzak

**FUTBOLA**
**Bergara 1; Real Sociedad B 0** 3. maila
**Urki 1; Bergara 1** 2. erregionala
**Bergara 0; Mondragon 1** Neskak
**Oiartzun 1; Bergara 3** Ohorezko jubenilak
**Billabona 6; Bergara 1** Lehen mailako jub.
**S. Tomas Lizeoa 2; Bergara 3** Ohorezko kad.
**Urki 3; Bergara 2** Bigarren mailako kad.
**Bergara 0; Amaikak Bat 1** Infantilak

**ESKUBALOIA**
**Bergara 27; Beasain 19**
Senior mutilak
**Bergara 17; Beasain 15**
Kadete mutilak
**Bergara 19; Aloña Mendi 24**
Jubenil mutilak

**SASKIBALOIA**
**Bolsos Bergara 69; Lezo 74**
Senior mutilak
**Lacor Bergara 48; Arrasate 46**
Jubenil mutilak
**Bergara 46; Atl. San Sebastian 35**
Kadete mutilak

**PILOTA**
**Aretxabaleta 22; Bergara 11**
Lehen mailako seniorrak
**Real Sociedad 17; Bergara 22**
Bigarren mailako seniorrak
**Bergara 21; Arrasate 22**
Bigarren mailako jubenilak
**Bergara 7; Añorga 22**
Kadeteak




# Labegaraietako futbito txapelketa

## EMAITZAK

**A MULTZOA**

| | |
|---|---|
| Eri-Buya | **4-3** |
| Bar Canalejas-Irubide | **2-2** |
| Pagomendi-Fac | **2-2** |
| Bildurbarek-Bar Ugarte | **3-6** |
| Errotagain-Apa Oxemai | **12-2** |
| Torrekua-Amoskibar | **4-5** |

**B MULTZOA**

| | |
|---|---|
| Etengabe-Ortzi | **2-7** |
| Suntsitzaileak-Tom Cat | **3-5** |
| Bayer-Kanpazar | **2-4** |
| Aterpe-Pinturas Bergara | **5-0** |

**C MULTZOA**

| | |
|---|---|
| Shaktale-Latex | **3-0** |
| Guadalest-Mo(ko)lotov | **4-3** |
| Txipiron-A Ze Flaxa | **4-11** |
| Komando Piperrak-Ezinleike | **5-3** |

## PARTIDUAK

**ZAPATUAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **11:30:** Buya-Torrekua | **Mongatxur.** |
| **12:30:** Mongatxurrak-A Ze Flaxa | **Torrekua** |
| **16:00:** Fac-Amoskibar | **Latex** |
| **17:00:** Latex-Komando Piperrak | **Pagomendi** |
| **18:00:** Pagomendi-Bildurbarek | **Bayer** |
| **19:00:** Manitou-Bayer | **Vacalouras** |
| **20:00:** Vacalouras-Suntsitzaileak | **Manitou** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **9:30:** Mo(ko)lotov-Txipiron | **Ezinleike** |
| **10:30:** Ezinleike-Guadalest | **Txipiron** |
| **16:00:** Bar Ugarte-Bar Canalejas | **Irubide** |
| **17:00:** Irubide-Errotagain | **Patxaran T.** |
| **18:00:** Patxaran Team-Shaktale | **P. Bergara** |
| **20:00:** Pinturas Bergara-Ortzi | **Shaktale** |

**DOMEKAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **10:30:** Kanpazar-Amilotx | **Tom Cat** |
| **11:30:** Tom Cat-Aterpe | **Amilotx** |

## ARGI!

**Latex taldeari abisua**

Latex taldeari hiru puntu kendu dizkiote antolatzaileek Shaktaleren aurkako partidura ez aurkezteagatik. Partidua galdutzat eman zaio eta arbitratzera edo jokatzera aurkezten ez bada berriro, taldea kanporatua izango dela adierazi dute.

**Zigorrak**

Etengabe eta Ortziren arteko partiduan epaileek lan dezente izan zuten eta Patxi Francok (Etengabe) eta Luis Carlosek (Ortzi) ez zuten neurketa amaitzerik izan. Bi partiduko zigorra ezarri zaie.

## GORA eta BEHERA

**Bar Ugarte, Irubide, Aterpe**

Bar Ugartek lehen postua eskuratu zuen Bildurbarek-i irabazita. Irubidek bina berdindu zuen Canalejasen aurka eta Aterpek erraz irabazi zuen.

**Partidurik irabazi ez dutenak**

Irubide jatetxea, Etengabe, Suntsitzaileak, Agirrebeña jatetxea eta Latex taldeek ez dute oraindik partidurik irabazi. Bada estreinatzeko ordua...

## SAILKAPENA

**A multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Bar Ugarte | 21 | 8 |
| 2. | Bildurbarek Opel Lam | 19 | 8 |
| 3. | Errotagain | 19 | 8 |
| 4. | Pagomendi | 19 | 8 |
| 5. | Bar Canalejas | 19 | 8 |
| 6. | Fac | 13 | 8 |
| 7. | Amoskibar | 9 | 8 |
| 8. | Apa Oxemai | 7 | 8 |
| 9. | Eri | 6 | 8 |
| 10. | Buya | 4 | 8 |
| 11. | Torrekua | 3 | 8 |
| 12. | Irubide jatetxea | 1 | 8 |

**B multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Aterpe | 24 | 8 |
| 2. | Ortzi | 16 | 7 |
| 3. | Tom Cat Argandolas | 16 | 7 |
| 4. | Kanpazar | 15 | 8 |
| 5. | Manitou | 13 | 7 |
| 6. | Pinturas Bergara | 13 | 8 |
| 7. | Amilotx | 12 | 7 |
| 8. | Bayer | 6 | 8 |
| 9. | Vacalouras | 4 | 7 |
| 10. | Etengabe | 1 | 7 |
| 11. | Suntsitzaileak | 1 | 7 |
| 12. | Agirrebeña jatetxea | 0 | 7 |

**C multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Mongatxurrak | 21 | 7 |
| 2. | Artusamak | 16 | 7 |
| 3. | A Ze Flaxa | 15 | 7 |
| 4. | Komando Piperrak | 12 | 7 |
| 5. | Ezinleike | 9 | 6 |
| 6. | Guadalest | 9 | 7 |
| 7. | Shaktale | 9 | 7 |
| 8. | Patxaran Team | 7 | 7 |
| 9. | Mo(ko)lotov | 7 | 7 |
| 10. | Txipiron | 3 | 5 |
| 11. | Latex | -2 | 70 |

Informazio hau babesle hauei esker:




**OGIZUN**
koop. elk.
**okindegia**

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13



Irizar 2
☎ 943 76 14 95
**JAUJA KIROLAK**


## mahoneroak



**IGOR ERRASTI**
**BKEko jokalaria**

Nire ustez, zapatuan merezimendu osoz irabazi genion Realari. Aurtengo ligan partidurik galtzeke ziren donostiarrak sailkapeneko lehenbiziko postuan zeuden, baina lehengo egunean behintzat, gauza gutxi egin zuten gure kontrako partiduan, itxura nahiko eskasa azaldu zuten; 2.B mailan aritzeko taldea duten zalantza daukat.

Argi daukagu gure liga Agorrosinen jokatzen dela, eta orain arte, behintzat, nahiko ondo ari gara etxeko partiduetan. Zapatuan gol aukerarik onenak gureak izan ziren eta ondo jokatu genuen. Lehen zatian ere Gorka San Vicenteri egindako penalti posible bat egon zen, baina epaileak ez zuen ezer adierazi. Bigarren zatia hasi bezain laster, partiduko gol bakarra egin genuen eta hortik aurrera ez genuen arazo gehiegirik izan emaitzari eusteko. Realak ez zuen ia aukerarik sortu eta hiru puntuak etxean geratu ziren. Garaipen inportante honek indarra emango digu aurrera egiteko.

**Otsein Saria**

Real Sociedad taldearen aurka jokalari hauek nabarmendu ditugu:

**Aritz Arabiourrutia................3 puntu**
**Igor Errasti.............................2 puntu**
**Gorka San Vicente................1 puntu**

*Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.*


Astero


Bailaran


Euskaraz


Doan

# Abenduaren 1etik aurrera,

**Goienkaria**
Debagoieneko Astekaria

zure eskura.



DEBAGOIENEKO ASTEKARI BERRIA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**


1. ETXEBIZITZAK: Saldu, Erosi, Errentan emateko, Errentan hartzeko, Etxe konpartituak, Bestelakoak
2. GARAJEAK: Saldu, Erosi, Errentan emateko, Errentan hartzeko, Bestelakoak
3. LOKALAK: Saldu, Erosi, Errentan emateko, Errentan hartzeko, Bestelakoak
4. LANA: Eskaintzak, Eskaerak, Bestelakoak
5. IRAKASKUNTZA: Eskaintzak, Eskaerak, Bestelakoak
6. IBILGAILUAK: Saldu, Erosi, Bestelakoak
7. ANIMALIAK: Saldu, Erosi, Bestelakoak
8. DENETARIK: Saldu, Erosi, Eman, Hartu, Trukatu, Galdu, Aurkitu, Bestelakoak
9. HARREMANAK: Agurrak, Kontaktuak, Deiak, Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Barrenkalea. 943 35 39 91 (gauez).

Matxiategi. Deitu 943 76 34 33 telefonora.

Zubiaurre. 100 m². Prezio ona. 943 76 28 49 edo 627 642 055.

Soraluze. 943 76 50 69.

### EROSI

Baserria erosi edo alokatuko genuke. 943 76 73 41 (Aintzane), arratsaldez.

### ERRENTAN EMATEKO

Logelak alokairuan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 943 76 15 40.

### ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko genuke alokairuan. 943 76 73 41 (Mikel).

Etxea hartuko genuke errentan, aukeran, San Antonio edo Labegaraieta inguruan. 943 76 18 73.

Pisua alokairuan hartuko nuke. 943 76 40 79 (Karmen)

### ETXE KONPARTITUAK

Pisua osatzeko neska behar da Bergaran. 696 782 176 (Loli) edo 630 712 318 (Marta).

Gela bat ematen dut errentan. 617 808 768.

Pisua osatzeko, animaliak gustuko dituen lagunaren bila nabil. Deitu 639 506 240 telefonora.

### BESTELAKOAK

Lursaila salgai Errioxan, San Millan de la Cogollan. 943 76 26 95.

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Ibargarai. 649 940 232.

Santa Marina ostean. Erosteko edo alokatzeko. 943 76 37 69.

Ibargarai. 943 76 00 93.

San Lorentzo. Deitu 943 76 14 97 telefonora.

### ERRENTAN EMATEKO

Ibargarai. 943 76 37 09.

Boni Laskurain. Deitu 943 76 49 56 telefonora.

Burdiñate. 943 76 02 34.

## 3. LOKALAK

### ERRENTAN EMATEKO

San Juanen bi lokal (60 eta 50 m²). Gasa ipintzeko aukera. 943 76 21 15.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Geriatria eta klinika laguntzailea. Gaixoen eta terminalen laguntzarako. 609 770 133.

Neska edozein lanetarako gertu. 600 600 531.

Emakumea umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 56 92.

Lan egingo nuke 15:00etatik 17:00etara. 943 76 36 68 (13:00-14:00 eta 19:00-21:00).

### ESKAERAK

Antzuolan emakume euskalduna behar da, goizetan etxeko lanak egin eta andre nagusi bat zaintzeko. 943 76 61 67 / 78 70 66.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 653 715 340.

Emakumea behar da bi ume zaintzeko. Arratsaldeetan, 4 ordu. 943 76 50 86.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu 943 76 09 17 telefonora.

Emakumea behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 943 76 71 96 telefonora.

## 5. IRAKASKUNTZA

### ESKAINTZAK

Ingeles Filologian lizentziadunak ingeles eskolak ematen ditu.


SANTOS IRRATI-TB
TELEFONIA MUGIKORRA • SUKALDEKO ALTZARIAK • ARGIZTAPENA
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

ARANE KRISTALDEGIA
Erakustoki berria
Artekalea 18, behea.
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

FRONTOI TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

Matxiategi Elektragintza S.L.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

HIRU BIDE JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

943 76 30 28 / 659 331 741.

**ESKAERAK**

Batxilergoko 1. mailako eskola partikularrak jaso nahi genituzke. 653 749 990.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Ford Escort familiarra (NA-AP). Ondo zaindua. 619 739 507.

Yamaha FZR 600 moto more-beltza. 1993. Maletina eta osagarriak. 627 210 891.

Suzuki Marauder 250 cc motoa. 629 771 085.

Ziklomotorra. 943 76 54 11.

Trialeko motoa. 125.000 pta. 943 79 78 36.

Honda CB500 motoa (1996). 34 CVra mugatuta. Estrak. 678 084 367.

Renault Laguna. Bi urte eta erdi. 70.000 km. 943 76 45 73.

Fiat Tipo 2.0 16V (SS-AN). 686 457 610 (18:00etatik aurrera).

## 7. ANIMALIAK

**SALDU**

Toy katutxo pertsiarra. Prezio ona. 943 76 13 90 (Manoli, gauez).

Yorkshire Terrier txakurkumeak. 943 76 18 96.

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

**BESTELAKOAK**

Bi txakurkume opari. Snaucer-ekin nahastua. 943 76 00 48.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Airwalk A-1 snow taula. 45.000 pta. Egoera oso ona. 943 76 01 51.

Autorako Sony irratia. 15.000 pta. 943 76 25 12.

Bi gurpil. Panda eta Ibiza autoentzat. Prezio erdian. 943 76 32 31.

Umeendako gela. Ohea, armairua eta mahaitxoa. 15.000 pta. 943 76 29 95.

Adria karabana, lau lagunendako. 943 76 56 84.

Besaulki modularra eta horrekin ondo ematen duten tapizatutako aulkiak. Eta mahai hedagarria. 943 76 03 01.

Umeen kotxeendako burbuila. Merke. 943 76 23 53.

Bikotearendako logela: Roche Bobois markako ohea eta mahaitxoak. 943 76 71 50.

Umeendako logela: zuriz lakatutako armairua eta sinfonierra. 943 76 71 50.

Piragua ia berria, gerriko estalkitxoa eta arraunarekin. Merke. 943 79 78 36.

Irristagailudun tronboia. Ia berria. 943 76 21 92.

Zanussi izozkailua, 7 kaxoiduna. Ia berria. Prezio ona. 943 76 12 01 edo 619 176 419.

Yamaha Hosseschrueders HC30R pianoa. 943 76 06 41 (gauez).

**EROSI**

Umeendako bigarren eskuko Bebe Confort markako aulkia erosiko nuke (bikiendako). 943 76 09 17.

Borda erosiko nuke Bergara inguruan. 943 76 26 82.

Txanpon zaharrak erosiko nituzke. 639 822 790 (Pello).

Bigarren eskuko saxofoi altua erosiko nuke. 943 76 29 67.

Umeendako bigarren eskuko kotxea erosiko nuke (bikiendako). 943 76 19 27.

**GALDU**

Urrezko zigilua galdu dut, J.S. inizialekin. 943 76 35 01.

Urrezko lepoko bat galdu dut, bihotz-irudi batekin. 943 76 28 85.

Hilaren 4an Festina markako mutil-erloju horia galdu nuen Boluko frontoian. 943 76 57 77.

**AURKITU**

Erlojua topatu dut Juan XXIII eta Aranzadi ikastola artean. 943 76 27 77.

Urrezko eskumuturrekoa topatu dut. Izena dauka. 943 76 50 28.


**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

***GIDARIA***
Arabar Lautada. 39290/2

***AUTOCADEKO IRAKASLEA***
Donostia. 39308/2

***DOKUMENTAZIO LAGUNTZAILEA***
Donostia. 40404/3

***GARBITZAILEA***
Murgia. 40502/3

***SUKALDARIA***
Bilbo. 40670/6

***GIDARI/BANATZAILEA***
Gasteiz. 41022/3

***GIDARI/BANATZAILEA***
Bilbo. 41632/4

***IGELTSEROA***
Bilbo. 41027/3

***INGLATERRARA JOATEKO AU-PAIR***
Bilbo. 42046/1

***BILTEGIZAINAK 2***
Ibai ezkerraldea. 41162/4

***KOMERTZIALA***
Bilbo. 41376/3

***KLINIKA/GERIATRIA LAGUNTZAILEA***
Gernika/Bermeo. 41501/1

***TORNEROA***
Aduna. 41601/1

***EXCEL AURRERATUA EMATEKO IRAKASLEA***
Gasteiz. 41717/3

***SOLDATZAILEA***
Gasteiz. 41770/3

***ELEKTRIKARIA***
Berriz. 41778/3

***FINANTZA AHOLKULARIA***
Debagoiena (Arrasate ezik). 42030/0

***KOMERTZIALAK 3***
Debagoiena. 42031/0

***CNC TORNEROA***
Zaldibar. 41029/3

***TRAILER GIDARIA***
Arrankudiaga. 40744/3

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



PISZINETAKO TABERNA
Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak
*Boni Laskurain z/g*
*Tf. 943 76 53 55*

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

SAN MIGUEL jaia
gaur, azaroak 24
11:00-02:00
Eskatu bat eta... bi edan

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

izeder
ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak
943 76 71 05. Arruriaga 2

IKUSBI
ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK
Irala 5 ☎ 943 76 53 09

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

# Sefardi musika kontzertua Julia Leon abeslariaren eskutik zapatuan udaletxean



Julia Leon abeslari eta ikertzailea.

**"Lorategi ezkutua" bere lan berria eskainiko du arratsaldeko 7:30ean pleno aretoan. Leonekin batera, Pascal Gaigne gitarrista arituko da.**

Julia Leon abeslari eta ikertzaileak sefardi musikan oinarritutako "Lorategi ezkutua" bere azken lana eskainiko du zapatuan, hilak 25, 19:30ean, udaleko pleno aretoan. Julia Leonek folklore tradizionalaren biltzaile gisa ibilbide luzea egin du. Azken urteotan, sefardi musika aztertzen aritu da, musika horren iturburu zuzenenekin harremanetan: Madril eta Valentziako komunitate hebraitarrekin aritu izan da lanean, Israelen ere bai, Isaac Levi sefardi musikaren biltzailearen etxean, eta Ramat-Gan eta Jerusalemgo unibertsitateetan.

### MUSIKAZKO MOSAIKOA

"Lorategi ezkutua"n, Julia Leonen disko berrian, sefardi abestiek kontraesankorra bezain liluragarria den mosaikoa osatzen dute: Europako Erdi Aroa, tradizio bizantziarra eta arabiar-pertsiarra elkarrekin bizi dira iberiar eta balkaniar penintsulako herri musikarekin, eta, oro har, Mediterraneoko ibarrekoekin. Lan horretan, zenbait pieza original aurki daitezke, sefardiak egondako herrien eragina dituztenak; beste batzuk, maileguan hartu ziren melodiak dira, denboraren eta hainbat aldaketen poderioz, herri musika sefardia bilakatu direnak. Sefardi musika deskribatzeko orduan, lurralde berean hainbat etnia eta kultura harmonian bizitzetik sortua dela diote adituek. Eta etnia eta kultura horien ezberdintasuez aparte, berdintasunen berri ere ematen duela.

Bergarako Udaletxean zapatuan eskainiko duen emanaldian, Julia Leonek Pascal Gaigne gitarristaren laguntza izango du.

## "Mantxut", Asisko Urmeneta komikigilearen lokuzio liburua

**Asisko Urmeneta** komikigile ezagunak "Mantxut?" lokuzioen liburua aurkeztu zuen joan zen eguenean Kultura Etxean. Zazpiak Batman taldearekin batera kaleratu du liburua, eta hainbat lokuzio, espresio eta esamolde jasotzen ditu. Guztiei umorea eta imajinazioa erantsi die, eta euskaldunok modu dibertigarri eta bizian komunikatzeko dugun beharra asetzeko moduko tresna proposatzen du; azken batean, erdarazko errekurtsoetara jotzeko maiz sentitzen dugun beharra gainditzeko eta kaleko erregistro informalei euskarazko irtenbide bat emateko.



Asisko Urmeneta eguenean Kultura Etxean egindako aurkezpenean.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Biona PENTSUAK BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

# Guillermo Azkarateren lehen liburua kalean da

**Guillermo Azkarate** bergararrak "Cuentos Checoslovacos... o así" liburua kaleratu berri du. Ipuin bilduma bat da, eta Donostian aurkeztu du. Ipuin askok osatzen dute liburua; idazleak berak ere ez daki zenbat diren. Gai aldetik ere halakoxea da, anitza: apaizak, emakumeak, tontoharroak... Guillermo Azkarateren arabera, "liburua puzzle bat da, eta loturarik gabeko flashek osatzen dute". Ipuinetako pasarteak "imajinarioak dira guztiak, eta baita erridikuluak ere". Hala ere, pertsonaia batzuk errealitatetik hartu dituela azaldu du, nahiz eta itxuraldatu dituen.

Osintxuarraren lehenengo liburua da, nahiz eta 15 urte zituenetik idazten duen. Irakurleak barre egiteko idatzi duela esan du, eta "komunean irakurtzeko". Bigarren liburu bat ere argitaratzeko gertu dauka.


Azkaratek bigarren lana prest dauka kaleratzeko.

## Jose Luis Feo bergararra, argazki rallyko irabazlea

**Jose Luis Feo** bergararrak jaso du Pol-Pol argazki taldeak azken urteotan antolatu izan duen Bergarako Argazki Rallya 2000ko lehenengo saria. Bigarrena, Roberto Madariaga zaldibarrarentzat izan da, eta hirugarren saria Benito Canterok jaso du, bergararra hirugarren hau ere. Herriko sari berezia Zigor Ruiz de Eginok eraman du eta Gazte saria, berriz, Arrasateko Oskar Torresentzat izan da.

Epaimahaiari dagokionez, hiru argazkilari izan dira epaimahaiko kide: Oskar Berreteaga, Jon Ozaeta eta Jon Ruiz de Zarate, hain zuzen ere.

Bestalde, aurtengo ekitaldian hogeita bederatzi lagunek parte hartu dute; horietatik hamazazpi, Bergarakoak izan dira. Sari banaketa gaur, eguakitza, egingo da Pol-Pol argazki taldeak Zabalotegin duen egoitzan arratsaldeko 20:00etan.



## denborapasa

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

LUMA

### Ezker eskuma

1. Udalerria zaintzeaz arduratzen dena. 2. Sasoi. Oinarrizko edari. Hidrogenoa. 3. Kezkatuta. 4. Gipuzkoan, zain. Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mendialdea. 5. Sail. Zabaldu. 6. Txorizoa. Bokala. 7. Aluminioa. Zuhaitz mota. Kontsonante errepikatua. 8. Autobus. Arabako herria. 9. Bokala. Intsektu mota. Kolore militarra. 10. Untzi-alboa. Jatorri atzizkia.

### Goitik behera

1. Alabaordeak. 2. Zuloak egiteko tresna. Bokala. 3. Abere belarjaleak. Gor. 4. Bi eta bi. Zenbaki bikoiti. Infusio mota. 5. Interjekzioa. IX. hilabete. 6. Azkenekoa. Azaletik. Bokala. 7. Pluralean, gizakiaren burujabetasuna. 8. Iruten duena. Norat atzizkia. 9. Nitrogenoa. Tik-... erlojuaren hotsa. Gorotza. 10. Pluralean, ardiaren arra. Iridioa.

*Soluzioa*

Ezker eskuin:
1. Udaltzaina. 2. Garai. Ur. H. 3. Arduratuta. 4. Zai. Aralar. 5. Atal. Ireki. 6. Lukainka. A. 7. Al. Urki. Kk. 8. Bus. Aiara. 9. A. Oti. Kaki. 10. Karela. Tar.
Goitik behera:
1. Ugazalabak. 2. Daratulu. A. 3. Ardiak. Sor. 4. Lau. Lau. Te. 5. Tira. Irail. 6. Z. Arinki. A. 7. Autarkiak. 8. Irulea. Rat. 9. N. Tak. Kaka. 10. Aharia. Ir.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da XVI. mendeko ermita honen izena?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara?**
**Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zenbat milioitan esleitu da Gabonetako argiteriaren instalazioa?
A- Hiru milioi
B- Hamar milioi
C- Hamaika milioi

2. Zenbat urte beteko ditu Lokatza Ziklismo Eskolak datorren urtean?
A- 15
B- 20
C- 25

3. Zein izen du Julia Leon abeslariak kaleratutako disko berriak?
A- Lorategi ezkutua
B- Europako Erdi Aroa
C- Mantxut?

Super BM IFA

***Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!*



Aurreko aleko saria, **Janire Baladron**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Janireri!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Telesforo Aranzadi**
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ____ *2:* ____ *3:* ____

Izen-deiturak: ____________ Telefonoa: ____________

*Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

Koipesol
ekilore olioa, litroa
128 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

# Asteko programazioa

GOITB
Goiena Telebista

**Bergaran 41 kanalean**

**EGUAKITZA 24**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Hamaika Magazin (errepika.)
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Astebete. Asteko gairik garrantzitsunen errepasoa Marijo Deograciasekin.
**22:00:** Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta
**22:30:** Gatza eta Berakatza.

**ZAPATUA 25**
**13:30:** Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

**DOMEKA 26**
**13:30:** Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

**ASTELEHENA 27**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Astebete
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Goienasport.
**22:00:** Gatza eta Berakatza.

**MARTITZENA 28**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Goienasport (errepika).
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Mahaiaren Bueltan. Monika Belastegik aurkeztuta.
**22:00:** Gatza eta Berakatza

**EGUAZTENA 29**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Mahaiaren Bueltan. (errepika).
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Alkatearekin Berbetan. Aste honetan Aretxabaletako alkatarekin mintzatuko gara.
Zuk ere zuzenean parte hatzeko izango duzu 943 71 23 93 telefonora deituta.
**22:00:** Gatza eta Berakatza.

**EGUENA 30**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Alkatearekin berbetan
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Ekilan.
Enpresen inguruko saioa da Ekilan. Alberto Gorritibereak zuzentzen du saio hau.
**22:00:** Soinuz blai.
Aste honetan Haika Aizpurua arituko zaigu martxa jartzen GOITBn.
**22:30:** Gatza eta Berakatza.

**kontuan hartzekoa**

## Hamar sarrera

***Goienasport*** *Astelehenea, 21:30*

Abenduaren lehenean Euskaldunon Egunkariak bere hamargarren urteurrena ospatuko du, eta horretarako pilota jaialdia antolatu du Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Gonzalez-Irigoien eta Xala-Otxandorena batetik, eta Goñi II.a eta Berna, Olaizola II.a eta Goñi III.aren aurka, bestetik.
GOITBk, Asegarceri esker, jaialdira joateko hamar sarrera ditu. Eta zuek sarrerak eskuratzeko aukera izango duzue: Gorka Etxabek zuzentzen duen Goienasport saioan, 943 71 23 93 zenbakira deitzen duten lehenengo hamar lagunek sarrera bana eskuratuko dute. Beraz, badakizue: azkar ibili!


Gorka Etxabe.

**ikustekoak!**



### Gatza eta berakatza
Rafa Zabalarekin.
*Astelehenetik eguakitzera, 13:40.*



### Alkatearekin berbetan
Aste honetan, Aretxabaletako alkatearekin berbetan: Angel Bergaretxe
*Eguaztena, 21:30.*



### Ekilan
Enpresen gainean hizketan, Alberto Gorritiberearekin.
*Eguena, 21:30.*



### Soinuz blai
Musika berrienaren berri, Haika Aizpuruaren eskutik.
*Astelehenetik eguakitzera, 20:00, 20:30 eta 21:00.*



# *Jaunartzearen eguna, 1980*

Hogei urte igaro dira gaztetxo talde honek lehen jaunartzea egin zuenetik. Hain zuzen ere, goiko argazkia 1980ko apirilaren 27an aterata dago, Santa Marina parrokian. Lehen jaunartzea euskaraz egin zuten neska-mutiko koadrila duzue, eta orduan zortzi urte izango zituzten, 1972an jaiotakoak dira-eta. Ohikoa zenez, jaunartzea egin aurretik katekesi eskolak hartuko zituzten eta jaunartze eguna senideekin batera ospatuko zuten. Honako hauek dira, dotore-dotore eta zintzo-zintzo, argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Aurreko ilaran:** Jose Jabier Larrañaga, Asier Elortza, Unai Colinas, Markel Leturia, Ibon Elkoroberezibar, Aritz Linazisoro, Uxue Otaola, Maider Elkoro, Joana Acedo, Irantzu Gisasola, Belen Ugarte, Itsaso Larraza eta Arantzazu Garai.

**Bigarren ilaran:** Mikel Unamuno, Andoni Goiti, Iñigo Gallastegi, Andoitz Garitano, Mikel Garitano, Maria Abajo, Amaia Albisua, Lierni Arregi, Gurutze Laskurain, ezezaguna, Rosa Mari Arantzabal, Ainhoa Bollar eta Idoia Elkoro.

**Hirugarren ilaran:** Javi Fernandez, Iñigo Orgaz, Xabier Beldarrain, Joseba Alberdi, Edu Iñarra, Jon Alberdi, Josu Olasolo, Aritz Egidazu, Asier Bardezi, Sonia De la Maza eta Nerea Aranguren.

**Laugarren ilaran:** Asier Agirrebeña, Zigor Otero, Aritz Ibartzabal, Iñaki Alberdi, Ainhoa Santos, Yolanda Etxeberria, Joana Gonzalez, Leire Guridi, Lorea Alberdi eta Marta Igartua.

**Azkenengo ilaran:** Iñigo Martinez, Aitor Ibabe, Asier Arenaza, Iñigo Gabilondo, Lauri Askargorta, ezezaguna, Mauricio Arregi, Jose Ramon Iturbe, Jon Andoni Urisabel, Izaskun Iztueta, Nuria Corrius, Amaia Prat, Maite Larrañaga, Amaia Txintxurreta, Nerea Iztueta eta Amaia Zabala.

Zuri Beltz margoak
Barnealde eta kanpoaldeen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

Zumelaga
JATETXEA
58 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25






# TORREKUA

ERRETEGIA

**Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7etatik zabalik**





**Ibargarai, 37**
**943 76 50 99**

Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

# Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



## EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express.**

Emaitzak bidean daude.

GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS

www.guipuzcoana.com

Erantzuna hemen duzu.